


uk

152. zenbakia / 2009ko martxoaren 2a



Eros ezazu zure **Udal**
Merkatua



ARGITATZAILAKEA: Boluntzarreta Eilakea

HELBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: ukd@eldizariairika / Posta Kutxa 171 / Tf.: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarminaga, Maitane Nerekan,
Zuberoa Ibururu

FOTOGRAFIA: Asier Mentsoka

TESTUEN ORRAZKETA: Zortza Vega

KOLABORATZAILAKEA: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Getxoko Euskara
Zerbitzua, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara
Eilakea.

MARRAZKAILAKIA: Dogan Gozel

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martinez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarte
Topaguneko partaidea da

Erandioiko Udala	<i>Sagartunako Udala</i>
	Urduizko Udala

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Poltsa buruan eta ibili munduan.
7. LEHEN ETA ORAIN. Arrituze kaia.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Mari Sol Silvano.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20.
Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

26. ALBUMA. Aratusteak.

28. ARGAZKIA. Aratusteak, indioa.

30. BERBETAN. Jon Maia.

34. FOTOGRAFIA. Alberto Diaz Calvo.

42. **ZINEMA.** Perseo zine zikloa, Leioa.
43. **MUSIKA.** Rise to Fall, disko barria. Diskoen erreseinak.
44. **LIBURUAK.** Bilboko literatura eztabaidak. Liburuen erreseinak.
45. **KIROLAK.** Basakick, Erandio eta Sopelako kick-boxing elkarteak.
46. **ELKARRIZKETA.** Olga Ruiz argazkilaria.

49. NORA JOAN. Txikitxu taberna, Sopela.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Mamarro futbol taldea 1943, Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Ane Zabala .

Azala: Alberto Diaz Calvo



Extremaduratik, Zamoratik...
euskararantz bidaia intimoa egin
du askok, Maiaren filma lekuko.



- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak

Iparragirre 94 • 48940 LEIOA • BIZKAIA
Tel.: 94 480 46 02 • Faxa: 94 480 42



Leihatila

> Aiala Elorrieta Agirre

Lana

Gure gurasoen belaunaldiari begiratzen badiogu, harrituko gaitu lanagaz izan duten edo daukaten lotura mailak: pertsona eta bere lanbidearen arteko identifikazioa ia erabatekoa izan dela esan genezake, kasik identitatea definitzeraino. Lanak, lanbideak, pertsona baten identitatea zehazterakoan zuen gaitasuna erabat ahuldu da. Gaur egun, ez dugu betiko iraungo digun eta gure nortasuna definituko duen lanpostua espero. Ezegonkortasunak kezkatzen gaitu, baina predeterminazioak ito. Ezin dugu hain erraz gure identitatea lanbide bakarrean definitu; askotan, lan ezberdinak “dastatuz” mugitzen baikara. Eta hala ere %100ean murgiltzea eskatzen digute: edozertarako prest egon behar dugu, beti apustu egiteko prest. Ezagun bik topo egiten dutenean, elkarri ohiko galderak jaurtitzen dizkiote. Zelan zaude? Aspaldiko! Galdera batzuei erantzutea ez da hain erraza izaten. Orduan, zu zer zara? Galdetzen digutenean...zer erantzun?...Ba...ni ez naiz.....nabil

gu geu

Gurean danak bardin dirau

Ale hau esku artean daukazunerako, dagoeneko jakingo duzu nor den EAEko lehendakari barria (edo bardina); jakingo duzu nork jaso duen boto gehien, nor juntatuko den nogaz, nor dagoen gustura emaitzakaz eta nor haserre... Gauza asko jakingo dituzu. Baina, ziur asko, jakingo dituzun gauza horiek guztiek ez dute lar aldatuko gure egunerokoa. Gurean danak bardin dirau. Beno, dan-danak ez; gauza barri asko baitugu 152. ale honetan. Adibidez, badatorrela Korrika Kulturala. Getxon martxoaren 13an izango da ekintza nagusia; horri buruzko informazioa daukazu 12. orrian. Honez gain, ez dugu alde batera utzi gura izan Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna. Eskualdeko hainbat txokotan emakumeon eskubideak aldarikatzeko ekimenak antolatu dituzte. Emakume askorentzat egun berezia izango da martxoaren 8koa. Baina, zoritxarrez, horrelako egun bat “ospatu” behar izatea, gizartean zer edo zer oker dabilen seinale da. Egun bereziak alde batera utzita, herrietan badago zer esan. Leioan, hitzarmena sinatu barri dute Eusko Ikaskuntzagaz. Plentzian, Itsasadarraren Aldeko Plataforma osatu gurean dabiliza. Berangokoek, Santa Anako Kultur Etxea handitu eta Auditorio barria eraikiko dute. Hori eta askoz gehiago aurkituko duzu orriotan.

UK-ko lantaldea

Iritzia

Hauteskundeak eta euskara, euskara eta hauteskundeak. Gai hori hizpide hartuta, berba batzuk bidali dizkigu Lander Solozabalek.

Ari du

Etxera noa. Eskilarak igon orduko, gainezka dagoan buzoia zabaldu eta hau-teskunde sasoiko paperak hartu dodaz. Badirudi alderdi guztiek propaganda banaketa egun berean egin dabela. Etxera sartu eta sofan jarri naz, banan-banan danak ikusten. Hasi naz irakurten:

«Telebistako
broma
horreetako
baten itxura
du honek»

etorkinak eta euskara hurbiltzea...”. Beste baten: “...konpromisoa hartzen dugu eus-kaldunei euskaraz bizitzeko aukera berma-tuko diegula...”. Hirugarren baten: “...lehenetasunen artean dugu euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzea eta babestea...”.

Hara! Honek oso itxura ona dauka! Jarraitu dot irakurten, adi-adi, gainerako alderdien triptikoak: “...gure alderdiak ira-

...gure helburuen artean dago eus-kaldunon komuni-tatea garatu eta indartzea, erdaldu-nak euskararen alde jartzea, eta

baziz gero, sei hilabeteren buruan EAEn ez da udalik egongo euskara planik eta euskararen ordenantzarik gabe, euskara normalizatzeko aurrekontu orokorra %50 handituko dugu eta elkarlanean arituko gara administrazioak eta herri elkarteak...” Ezin dot sinistu. Hau ondo dago? Gaztelaniazko bersinora jo dot: “...la política lingüística tendrá una centralidad absoluta en el nuevo Gobierno y será considerada como transversal en todos los departamentos, instituciones y organis-mos”. Zer da hau?

Akaso ale honeek txarto inprimidu dabez. Etxetik urten, buzoietara jaitsi eta, kontu handiz, eta inor ez dagoala apro-betxauta, auzokideei ostu deutsedaz pape-rak. Korrika bueltau naz etxera, ume bihurriaren moduan. Ostera be ekin deu-tsat lanari: “...Espainiako Konstituzioak dioena orekatzeko, guk osatutako Jaurlaritza berriak lehenasunezko izaera aitortuko dio euskarari, eta behar diren baliabide eta indar guztiak jarriko ditugu euskararen normalizazioan urrats sendoak egiteko...”. Hasi naz urduri ipinten. Telebistako broma horreetako baten itxu-ra du honek. Interneten begituko dot. Formal itxura daukan gazte antiojudun baten argazkiaren ondoan, hauxe: “...zure botoari esker, gure Gobernu berriak eus-kara erabiliko du barne funtzionamen-duan, herritarrekiko harremanetan eta baita organismo eta erakunde guztiekiko harremanetan ere, eta helburua euskara jakitea eta erabilera normalizatzea izango da... ”; eta aspaldirik ezagunagoa dan beste batek dinost: “...zuok denok, Euskadiko eta Euskal Herriko herritar guztiok, euskara ezagutu ez ezik erabiltze-ko eskubidea ere baduzue eta gure alder-diak...”. Despertadoreak esnatu nau. Martxoaren 2a da, astelehena, goizeko zazpiak. Gaur ere, euria ari du.

Lander Solozabal

(Bizarra Lepoan Euskara Elkartea, Getxo)



2008KO ABENDUA, LEIOA

Poltsa buruan eta ibili Leioan / Egun euritsua, negu honetan barra-barra izan ditugun horrelakoak. Esnatu, dutxa beroa hartu eta eguneroko egin beharrakaz hasrea baino ez dago. Ezer baino lehen, bazkaltzeko zer egin pentsatu. Hozkailua zabaldu eta ezer gurxi. Jaka janrzi, karroa hartu, eta merkaturako bidea hartu du. Lehenengo tantak buru gainean sentitu ditu gizonak; zoritxarrez, goardasola exean ahaztu du. Birritan pentsatu barik sakelean duen plastiko poltsa atera eta buruan janrzi du. Ez dago horrenbeste diru gastatu beharrik Gore-tex on bat lortzeko. o / Argazkia: **Asier Mentxaka**



Iraganez doa denbora* beti / ARRILUZE KAIA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > ilargia



2009ko otsaila, Gorliz

Testua: **Peru Vidal** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago

Txiki izatetik etorri da eta heldu da osora orain beteta dagoen arren txikituko da gerora biribil handi bat ikusten dut begiratuz gero gora baina argidun biribil huts bat baino askoz gehiago da.

Ilargi betedun gauek dute sorginkeria garbia itsasoak nahi duen tokira eramaten du argia katu beltzek teilatuetatik ai zelako ausardia! askatasunaren irudi da betetzearan ilargia.

Iluntzeetan agertu eta egunsentira arte dirau gau luzeetan iluntasuna argitzea dauka arau ilargi beteari begira pasatu ditut mila gau ez dakit ondo zer duen, baina liluratu egiten nau.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal iezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkiren bat eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

uk

zure

dirulaguntza

behar-beharrezkoa dugu!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37

8UK

getxo > oinezkoen joan-etorriak erraztuko dituzte zenbait kaletan

700.000 euro bideratuko dituzte kale eta parkeen egokitzapenerako

Unbe, Urduña, Iturribide, San Martin eta Jaime Morera kaleak hobetu eta osorik erabarritzeko eta lehenengo bien artean dagoen parkea urbanizatzeko lanetan 730.000 euro inbertituko ditu Getxoko Udalak. Tokiko Inbertsiorakoa Estatuko Funtzaren dirulaguntzagaz finantzatzeko diren lanak, maiatza aldera hasiko dira, eta dena ondo joanez gero, sei hilabetearen amaituko dira. Udal arduradunen arabera, egitasmoaren helburua *“oinezkoak erabiltzeko diren guneak era nabarmenean hobetzeko lanak egitea da, espaloiak gaur egun oso estuak baitira eta zoladura hondatuta baitago”*. Alde batetik, espaloiak zabaldu, zolatu eta zebra-bideak barrituko dituzte; bestetik, Unbe eta Urduña kaleen artean dagoen parkeari, hiri mobleria eta argiztapen barria ipiniko diote. Lan hauei esker, Irisgarritasuna Sustatzeko Legera egokitzea bermatuko da. ○

euskara > EGA azterketa prestatzeko web gunea sortu dute

Doako zerbitzua da, erregistratu baino ez da egin behar

Euskararen gaitasun agiria (EGA) prestatzeko www.egela.aek.org web gunea ipini dute abian Ordiziako Jakintza Ikastolak, EHUko Kide taldeak eta AEK-k. Bertan, EGA azterketa prestatzeko aholkuak, ariketak, azalpenak eta adibideak topatu ahal izango ditu erabiltzaileak. 2003 eta 2006 bitarteko azterketak ere eseki dituzte. Tutoretza zuzenik ez dagoen arren, ariketak zuzentzeko tresnak egongo dira eskura. Egileek esandakoaren arabera, web gunearen helburu nagusia *“euskara ikasle eta irakasleen esku baliabide multzo libre bat jartzea izan da, baina baita elkarlanerako bide barria zabaltzea ere, ahaleginak batuz eta ideiak trukatur”*. Doako zerbitzua da, eta erabili ahal izateko izen-abizenak eta posta elektronikoa helbidea baino ez da eman behar; horrela erregistratua geldituko zara. ○

saiaz getaria

HOTELA

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa

...haria

...lehengo garaia...

...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

UK9

leioa > udalagaz elkarkidetza hitzarmena sinatu du Aranzadi elkarteak



Leioako Kortasenabarri baserria

Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Leioako Udalak elkarkidetza hitzarmena sinatuko dute hemendik gutxira. Horri esker, Aranzadik bere egoitza finkatuko du Leioako Kortasenabarri baserrian; orain dela hilabete gutxi batzuk Enplegu Tailerraren ikasleek barriztutako eraikinean, hain zuen ere. Aranzadi Elkarteak 1947an sortu zen, ikerketa zientifikoa eta teknikoa ditu helburu nagusi; batez ere ingurumen naturala eta gizatiarrari dagozkion arazoetan; honez gain ondare arkeologikoa, etnografikoa eta naturala babesten eta mantentzearen alde egiten du behar. Udalagaz sinatuko duen akordioak, Leioa, zein inguruetakoa biodibertsitatea eta ondare arkeologikoa, etnografikoa eta naturala aztertzeke ikerketa bultzatzea du helburu. Horrez gain, ikastaroak, batzarrak eta jardunaldiak antolatuko ditu gai horien inguruan; Udalagaz batera, hainbat lehiaketa eta proiektu aterako ditu aurrera. ○

getxo > urte akaburako amaituko dute Aiboako igogailua



Txakursolo kalean egingo dute igogailua urte akaburako

Uda hasieran abiatuko dituzte Aiboako maldaz gorako igogailua ipintzeko lanak. Igogailuak Txakursolo kalea eta Metro geltokia eta Arkotxa-Ormetzeko aldea lotuko ditu. Ereagakoak duenaren antzeko kabina panoramikoa izango du, eta mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen irisgarritasuna bermatuko du. Dena ondo badoa, urte amaierarako ipiniko dute martxan. 1.555.000 euro inbertituko dituzte igogailuan. Gaur egun, Aiboako Metro geltokiko sarrera-irteera igogailua ipiniko duten ezpona berdeko albo batean dauden eskailera tarte batzuetatik iristen da. Halaber, denboraren joanean inguruetatik ibili ohi diren oinezkoek egindako bidezidor edo bideska bat dago. Hori ere, konpondu eta oinezkoentzako ibilbidetxo txukuna egingo dute goi aldetik. ○



“Herriko emakumeak gure sentipenak elkartrukatzeko leku bat izateko sortu genuen elkarteak”

Mari Sol Silvano > GIZATIAK elkarteko fundatzailea

Beste hamar lagunegaz batera, Gizatiar emakume elkarteak sortu zuen 1995. urtean Mari Sol Silvano getxoarrak. Garaiko beharrei erantzuteko sortu zuten elkarteak: *“Emakume batek bestearekin deitu zion eta horrela hasi ginen. Santa Eugenia plazan eta inguruko tabernetan batzen ginen, ez genuen gehiagorik. Sentipenak elkartrukatzeko eta beharrak asetzeko leku bat sortu gura genuen”*. Ez zen lan erraza izan; elkarteak aurrera ateratzeagaz batera, etxe barruko zein, kanpoko lana, seme-alabak eta eguneroko eginbeharrak daude: *“Dena ondo antolatzen saiatzen naiz, bestela ez nintzake helduko”*. Gaur egun 2.000 emakume daude Gizatiarren: *“Garrantzitsua da antolatzen ditugun tailer eta ekintzetan parte hartzeaz gain, elkarteak aurrera ateratzen laguntzea, kontzientziatuta egotea”*. Silvano, juntako kide izatera bueltatu da 13 urte eta gero. Martxoaren 8ko aldarrikapenei buruz galdetu diogu: *“Garenagatik baloratu behar ditugu gizona, zein emakumea. Emakume bezala baloratu behar gaituzte lehenengo; gero ingeniaria, garbitzailea edo beste edozein gauza izateagatik. Errespetatzen bagaituzte ez da arazorik izango. Gutxika, baina aurrera goaz. Askotan emakumeak gara oztopoak jartzen ditugunak”*. Laster jubilatuko da, baina sekula ez ditu ahaztuko Erromoko botikan emandako urteak: *“Bihotzean daramat Erromo; bere onena eman didate erromotarrek. Auzo borrokalaria izan da beti”*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan
global printers

Vila de Plenzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Reprografía

Imprimatze eta plano kopiak •
Kartelak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
ermarkaketak •

Galapaldi kulturala Getxon

Korrika Kulturalako zenbait **ekitaldi antolatuko dituzte Getxon** 16. Korrika udalerrira heldu baino lehen, gorputza eta arima **berotzen joan** gaitezen

Edozein korrikaldi baino lehen luzaketak eta beroketak egitea komenigarria dela diote adituek. Hala bada, eta apirilaren 3an zaintiraturik-eta gerta ez dadin, hobe dugu gomendioei jaramon egitea, eta horretarako eraginkorrena **Korrika aurreko ekitaldi kulturaletan parte hartzea litzateke; Getxon badago non aukeratu.**

Hilaren 26an Tuteran hasiko den 16. Korrikaren harira, urtero legez, aurten ere data hori baino lehen Korrika Kulturala ipini du martxan AEK-k. Horren barruan ekitaldi andana antolatu dituzte han eta hemen, eta Getxon egingo direnen egitaraua prest daukate.

Lehenengo ekitaldiaren hitzordua hilaren 13rako ipini dute (20:30; Algortako Kasinoa -leku kopuru mugatua, 200 bat lagun-, doan) eta euskarara hurreratutakoei (Euskal Herrira lan bila, bizimodu hobearen bila edo bizi ahal izateko leku bila etorritakoei) gorazarre egin asmoz, Jon Maiak osatu duen “Bidaia intimoak” dokumentala ikusteko aukera egongo da. Horren ostean, omenaldi xumea, eskertu egingo zaie euskarara hurreratu diren getxoztar batzuei: “euskara galdu eta berreskuratzen dabiltzanei, kanpotik etorri eta ikasi dutenei, eta oro har, euskarara hurbildu diren guztiei”.

Hurrengo ekitaldia Jon Urraza getxoztarrak eta Jon Zubiagak antzeztan duten “Morritson eta Gartzia: Kultoko antzezle-



“Bidaia intimoak” dokumentalaren irudia

na” ikuskizuna izango da hilaren 31n (20:00; The Piper’s taberna, doan).

Korrika Getxotik pasako den egunaren bezperan, apirilaren 2an (20:00; The Piper’s taberna, doan), Fredi Paia, Arkaitz Estiballes eta Etxahun Lekue ber-

«Korrika Getxotik pasatu (apirilak 3,16:15) ostean jaia egongo da Santa Eugenia plazan»

tsolariek, Josu Martinez eta Txaber Fernandez musikariek prestatu duten “Hudaltzainak” baliabide askotako ikuskizunagaz gozatu ahaliko dugu: film laburrak (Asier Hormaza, Ander Lipus, Porrotx eta beste asko ikusiko ditugu pantailan), bertsoak, musika...

Amaitzeko, “Ongi etorri euskaraz bizi

nahi dugunon herrira” lelopean, galapan egingo duen Korrika Getxotik pasako den egunerako, apirilak 3 (16:15; Berangotik helduko da), jaia antolatu dute 18:00etatik aurrera Santa Eugenia plazan: euskara-okea, Tor magoaren saioa eta Lisker taldeagaz erromeria. ○

Kultur ekitaldiak

- **Martxoak 31:** “Bidaia intimoak” dokumentala. Kasinoa. 20:30. (leku mugatua)
- **Martxoak 31:** “Morritson eta Gartzia: Kultoko antzezlan”. The Piper’s taberna. 20:00.
- **Apirilak 2:** “Hudaltzainak”, ikuskizuna. The Piper’s taberna. 20:00.
- **Apirilak 3:** Korrika eta jaia. Santa Eugenia plaza. 18:00.

Martxoak 8

Hirigintza, segurtasun eza eta andrazkoak aztergai



Lantegietan parte hartzeko eta museoko bisitarako (biak doan) izen-ematea Tel: 94 460 01 36

Hilaren 8aren inguruan, nazioarteak andrazkoen eskubideak betetzea aldarrikatzen eta egoera salatzen dituen egun “nagusia-aren” harira, Udal Berdintasun Zerbitzuak eta hainbat emakume elkarte-ek zenbait ekitaldi antolatuko dituzte. Oro har, arreta berezia ipinarazi gura dute gizon-emakumeen egunerokoan hirigintza politikek gauzatzen dituzten eragin desberdinetan; hala, aurtengo leloa “*Hiri debekatua. Hirigintza, inseguritatea eta emakumeak*” da, eta leku publikoetan segurtasun eza hautemateak duen eragina jorratuko dute. Antolatzaileek adierazi dutenez, “...desorduetan leku batzuetatik bakarrik ibiltzeagatik... eraso sexistak jaso ahal izateko beldurrak andrazkoek norbere babesarako hainbat estrategia garatzea dakar; era berean, horiek euren askatasuna eta autonomia izugarri mugatzen dituzte”.

Beraz, “Emakumeentzako hiri debekatua- ren mapa” osatzeko proiektua martxan ipini dute, horretarako lantegiak antolatu- tuz Areetako Nagusien Etxean (hilak 6 eta 13, 17:00), Andra Marin (kiroldegian, hilak 6 eta 13, 19:30) eta Villamonten (hilak 7 eta 14, 10:30). Bestalde, ondorengo ekimenak ere prestatu dituzte: urte- roko horma-irudia margotzea (hilak 6, 10:00; San Nikolas plaza); Arriagatiko manifestaziora joatea (hilak 8); Diana Raznovichen *Mujeres pluscuemperfectas* liburu-aurkezpena (hilak 10, 19:30; Villa- monte); *Menu del dia* antzerkia (hilak 15, 19:30; Musika Eskola), Arte Eder Museora bisita “Emakumeen ordezkaritza artean” jorratzeko (hilak 17, 18:00) eta Enrique Pimoulierren “Jatorrizko herri- mugimenduetako emakumeak” argazki erakusketa (hilak 17-28, Erromo). ○

“BAKOITZAK BERE, DENOK BATERA!” KANPAINA MARTXAN

Erantzukizuna alkarbanatzearen garrantzia nabarmentzeko sentiberatze kanpaina ipini du martxan Udal Berdintasun Zerbitzuak. Kanpainaren barri liburuxka baten bitartez emango dute, eta horren bidez agerian utzi gura dute etxe batean bizi diren pertsona guztien artean lana banatzearen beharra. Keltse Eiguren zinegotziak azaldu duenez, “*kanpainaren helburua emakume eta gizonen arteko harremanen eredu barria lortzearen alde behar egitea da; etxeko lanak eta zaintza lanak benetan bana daitezen eta horrela pertsona guztiok asmo pertsonal eta profesionalak asetzeko moduan egoteko*”. Etxeko lanen eta zaintzaren arduradun nagusiak izateak, lan arloan andrazkoei sortzen dizkien desabantailak eta bazterke- tak ere agerian utzi gura dituzte. Dagoeneko hainbat ekimen gauzatu dituzte, adb.: Villamonteko gizonetzkoen komunean pixohialak aldatzeko gunea ipintzea, oinezkoentzako hainbat gunetan trafiko seinaleak aldatzea.

VILLAMONTEKO IGOGAILUAK “BEREHALA”

Villamonteko etxeetako Jabeen Elkargoagaz lortutako akordioaren ondorioz (horiek doan eman dizkiete Udalari igogailuak ipintzeko behar diren lurrak), Udalak eremu horretan igogailu publiko bi (bakoitzean 13na lagun sartzen dira eta kameren zaintzapean egongo dira) ipintzeko izapideak abiatu ditu. Lanen aurrekontua 715.000 eurokoa da eta udaberrian hasiko dira.

SAHARAREN ALDE 8 TONA PRODUKTU ETA 18.000 EURO

“Piztu Itxaropena” Sahararen aldeko V. Euskal elkartasun Karabanarako Atfal elkarteak 8 tona jaki eta higiene produktu batu du aurten. Gainera, Udalak eman duen 18.000 euroko diru-laguntza batu diren produktuak garraiatzeko kamioi bat erosteko baliatu dute.

Alvaro Heras > musikaria, rockzalea

“Elkarrizketak 150; Bilboko garai bateko egunkarien barriak; 400 irudi aukeratu...”



Liburua erosteko dendak: Gong (Arte), Brixton (Erromo) edota Eztabaidagunea (Algorta). Informazio gehiago: www.myspace.com/historiarockbilbao

Alvaro Herasek (Algorta, 1972) aurkitu duen Bilbo inguruan rockaren gainera argitaratutako lehenengo barria 1958koa da, orduan abiatzen da Lluvia, Hierro y Rock&Roll. Historia del rock en el Gran Bilbao liburu. Iragan urtean plazaratu zuen berak autoeditatu duen lana, eta 2008ra arteko bitartea batu du bertan, 50 urteotako inguruotako rockaren historia zatia hamarkadaka eta estiloka sailkatuta emanez.

—Zelan otu zitzaizun liburuaren ideia?
—2003 aldera. Kide nintzen talde biak banandu barriak ziren; nik musikagaz, zehazki rockagaz, lotutako egitasmoren batean segitu gura nuen. Gogotsu sentitzen nintzen, denbora ere baneukan... 5 urte pasa dira liburu argitaratu dudanerako. Alde batetik, elkarrizketak egin nituen, 150 inguru; bestetik, hemeroteka-lana liburutegietan, zenbat ordu! Antzinako prentsa, Bilboko garai bateko egunkariak begiratzeari egiteko, “El Hierro”, “La Gaceta del Norte”, “La Hoja del lunes” etab. 1958tik aurrerako bobina bakoitza hartu eta egu-

nez egun, orriz orri aztertzen nituen; kontzertu, talde, rockagaz lotura zuen edozer batzen nuen. Gainera, irudiak bilatzeari dago, 400 eta piku dira: taldeen argazkiak, sarrerak, posterrak etab. Mila bat izango ziren, eskaneatu ostean; hautatu...
—**Laburbil zenezake liburuaren mamia?**
—Gatxa! 60-70. hamarkadetatik oso informazio gutxi lor liteke, baina nabarmentzekoa da; orduan gertatutakoa (talde, lokal, leku, kontzertu-areto, istorioak, gazteen aisialdiko ohiturak etab.) idatziz jasota gera dadin laguntzen duelako; bestela, betiko gal liteke. Baina, belaunaldi-hamarkada

bakoitzak berezko ezaugarriak izan zituen. Nik uste, kontuan hartuta iraganeko gabeziak eta premia gorriak, rockari dagokionez, egoera ez dela inoiz izan egungoa bezain ona: talde eta estilo andana, ezaugarri eta tamaina askotako lokalak, musika sustapenerako enpresa nahiko; 20 urteotako baliabide-azpiegituren hobekuntza itzela; erakundeen inplikazioa, kostata, baina! Hor dira Villa de Bilbao lehiaketa, Bilbo-Rockeko entsegu-aretoak, Bilbao Live etab. —Halere, musikariak kexati; sarrerak garestiago; zaleek poltsikoak hustuago... —Musika “doan” lortzearena auzi globala

«90. hamarkadako Getxoko “eszena”, Getxo Sound legez ezaguna...»

da. Sarreren prezioarena... hemen lar txarto ohituta gaude! Kopa pila edanda dirua xahutzeak ez die axola, baina kontzertu batean 15 euro gastatzea larregi da! Baina bai, sarreren prezioa nahikotxo igo da; diskoak saltzen ez direnez, agian, diskoetxeak portzentajea lortzearen ekitaldi-antolatzaile bihurtu direlako... Halere, kontuak hobera egin duela uste dut; musikariak ere eguneroko ogia ahoratu behar dutela, azpiegiturak ordaindu behar direla, antolatzaileek ere irabazi behar dutela programatzen jarraitzeko etab. konturatzen dabiltzala.

—**Getxoko giroa ere batu duzu liburuan.**
—90. hamarkadako Getxoko “eszena” bai, “Getxo Sound” legez ezaguna: Wendoline aretoa, programa zabala eta ona eskaini zuena; proposamen interesgarriak eta kalitatezkoak egin zituzten talde asko, adb. Inquilino Comunista, Los Clavos etab. Giro handia egon zen, ekimen piloak. Getxotik kanpo ere berba egiten zen! Gero, Zarraoa alkate izendatu, eta dena hondatu zuen! ○

V. Gazta azoka

martxoaren 5-8 bitartean Algortako Geltoki plazan makina bat gazta gozagai eta salgai



Salmenta postuak zabalik egongo dira 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:30era

Esan liteke Getxoko Gazta azokak lekua bereganatu duela dagoeneko egutegian, aurten egingo den ekitaldiagaz bosgarren urtea beteko du-eta. Urtero-urtero aho-zeru gehiago poztzen ditu azokak eta aurtengo ere seguruenera baten bat adurra dariola dabil honezkero. Jatorri ezberdinetako eta hamaika motatako gaztak egongo dira gozagai eta salgai hilaren 5etik 8ra, eguenetik domekara bitartean, ohi legez Algortako Geltoki plazan. Azokan parte hartuko duten hamasei gaztagileren salmenta-postuak 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:30era bitartean egongo dira zabalik.

Jatorriari dagokionez Extremadurako, Gaztela eta Leongo, Caceresko, Arabako, Bizkaiko, Galiziako, Kanariar Irletako, Asturiasko, Errioxako, Kataluniako, Aragoiko, Nafarroako, Balear Uharteetako, Frantziako eta Italiako gaztaiak (azken biak lehenengo aldiz hurreratuko dira azokara) erosi eta dastatu ahaliko dira. Motari dagokionez ere, egongo da non aukeratu, barbarako: ahuntz, behi ala ardi-esnez egindakoak; zapore eta egitura leun-bigunekoak, zein gogorrekoak; zulo-dun ala zulobakoak, gazta urdina, titigazta, Erronkarikoa, Casarreko opila, parmesanoa, “escobeyrou”... ○

ELKAR GUNE LIBURUXKA BANATU DU UDALAK ETORKINEI BEGIRA

Elkar Gune gida-liburuxkaren bigarren edizioa banatu barri du Getxoko Udalak. Argitalpenak Udal Gizarte Zerbitzuetako Immigratio eta Kulturazintasuneko arloak etorkinei begira bultzatzen edota martxan dituen ekimenen barri eskaintzen du. Harrera eta Sustapen ekimenen programa batzen du liburuxkak eta sarean ere kontsulta daiteke (helbide elektronikoa behean). Sor litezkeen beharren eta dauden baliabideen edo eskaintzaren gaineko informazioa eskaintzen du, eta joan den urtean zehar egindako sareko kontsultei begira “tresna baliagarritzat” jo du Immigratio arloak. Izan ere, 62.477 bisita jaso zituen webguneak, gehien-gehienak gazteleraz, 6.300 errumanieraz eta 5.061 arabieraz. Kontsultatu ziren gai nagusiak hurrengoak izan ziren: lan baimenaren ingurukoak, gidatzeko baimenaren gainekoak, erroldari buruzkoak eta bizilekuari dagozkionak.


Informazio gehiago: www.kaixogetxo.net

ANDRAZKOEK SORTUTAKO KOMIKIEN GAINEKO MAHAINGURUA

Hilaren 6an (19:00) Skolastika taldeko Josune Muñozek “Comics creados por mujeres” mahaingurua gidatuko du. Algortako kultur etxean (Villamonte) ipini dute hitzordua, sarrera doan izango da.

XXIV. UDABERRIKO KONTZERTUAK

Algortako El Redentor elizan (20:00), Udaberriko Kontzertuak ekitaldiaren barruan, hurrengo entzunaldiak egongo dira: Capilla Real Madrid (hilak 10), Iturriaga Laukotea (hilak 11), Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoa (hilak 12), Russian Musical Chamber Ensemble “Victoria” (hilak 13). Ekimenaren azken kontzertua, talentu barriei lekua egingo diena, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan izango da eta Mario Lerena piano jotzaileak eskainiko du.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • Tf. 94 460 71 62 / Telletxe 15 • Tf. 94 460 42 44 • **ALGORTA**

Isabel Garcia > Gizarte Ekintza zinegotzia

“Garrantzitsua da emakumeagaz batera senideak ere etortzea aholkularitza psikologikora”

Badira pare bat urte Udalak emakumeei Laguntza Psikologikoa zerbitzua abiatu zuenetik; lortu dituzte lehen arrakastak, Isabel Garcia zinegotziak kontatu digunez.

—Laguntza psikologikoa zerbitzua eskaintzen du Udalak, nola?
—Aholkularitza psikologiko zerbitzua Gizarte Ekintza zinegotzigoaren menpekoa da, berdintasun arloaren barnean. Indarkeriaren Aurkako Protokoloak eragin zuen zerbitzua prestatzea. Programak helburu argiak dauzka. Gizarte Zerbitzuetara doazen emakumeen artean, gizarte langileek ikusten badute arazo psikologikoak dauzkatela, familia ingurumen eta genero indarkeriaren ondorio direnak batez ere, programan parte hartzera gonbidatzen dituzte. Urte bi daroaz zerbitzua sendotzen, eta ordutegia zabaltzeari esker, orain herritar gehiagok ezagutzen du baliabide hau, zerbitzu hobia eskain daiteke. Gainera, aurten hogeik kasutik 30era igaro ahal izan dugu.
—Nori zuzenduta dago?
—Leioako emakume guztiei, behin Gizarte Zerbitzuetatik pasa eta programan parte hartzea egokia dela ikusiz gero. Hori da protokoloa. Ez dezagun ahaz emakume batek aholkularitza jasotzera iristen bada, gehitutako



Gizarte Zerbitzuen menpeko da Laguntza Psikologiko zerbitzua

beste arazoa ere badaukala. Izan daiteke baliabide ekonomiko falta, zerbitzuan parte hartzen duten emakumeen profila 30 eta 50 urte bitarteko emakumearena da, bakarrik eta seme-alabakaz; hau da, bikotearengandik banatzen dabilena edota tratu txarrak jasan dituen, edo sinpleki, bizitza zaila daukana. Baliabide asko behar dituzte emakume horiek: informazio baliabideak, ekonomikoak, etxebizitzarako sarbidea, baliabide juridikoak... Eta Udal honek beraien eskura doan

jartzen duen beste baliabide bat, laguntza psikologikoarena.
—Emitzak zer moduzkoak dira?
—Oso positiboa da aurten 14 txosten itxi izana. Ez soilik profesionalaren iritziz, erabiltzaileen aldetik ere itxi dira eta. Arrakasta da. Kasu zailagoak ere badaude, bestelako baliabideak ere eskaintzen dizkiegu. Gainera, 2008an gizon bigaz behar egitea lortu dugu. Emakumeagaz batera, senideak ere beragaz etortzea oso garrantzitsua da. ○

Eusko Ikaskuntzagaz

elkarkidetza **hitzarmena** egin du Udalak “**Euskal Herriaren nortasuna sendotzeko**”



Liburutegiak eguneratzea ere aurreikusten du hitzarmenak

Kultura eta zientzia lankidetza hitzarmena sinatu dute Udalak eta Eusko Ikaskuntzak. Biek elkarregaz behar egiteko konpromisoa hartu dute “*Euskal Herriaren nortasuna sendotzearen alde*”. Leioak hainbat abantaila izango ditu urteroko kouta baten truke. Eusko Ikaskuntzaren argitalpen bildumaren 420 ale eta urtero argitaratzen dituen liburu barrien ale bana jasoko du.
Leioztarrek ere edukiko dituzte abantailak. Batetik, Eusko Ikaskuntzak antolatzen dituen ikastaroetan eta hizaldietan parte hartu gura dutenek %40ko deskontua izango dute, eta bestetik, Eusko Ikaskuntza Asmoz Fundazioaren kongresu, jaurdunaldi eta horre-

lakoetan %15eko deskontua egingo diete.
Eusko Ikaskuntzak Udalakaz egin dituen hitzarmenen artean dago hau. Udaletik jakinarazi dutenez, hitzarmenaren baitan artxibo eta liburutegiak eguneratzen dira, ondarea erroldatzen da, ikerketa bekak ematen dira, erakusketa, jardunaldi eta kongresuak antolatzen dira, gogoeta estrategikoak egiten dira, liburuak editatzen dira edota udalerrietako ondare herrikoia eta historikoa- ren bilketak sustatzen dira. Kultur ekintza bat ere prestatuko dute urtero. Euskal kulturaren balio tradizionalak finkatzea, kultura goratzea eta hedatzea du helburu erakundeak. ○

UDAL-PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEA ONARTU DUTE

Udal-plangintzako Aholku Batzordea erregulatzen duen erreglamentua onartu du Udalak. Ordezkarikari politikoz (Hirigintzako Batzorde informatiboko kideak) eta herritarrez osatuta egongo ei da eta bere helburu nagusia izango da “*Udalaren eta gizarte- eta ingurumen-arloetako eragileen informazio eta eztabaidarako gune izatea*”. Eneko Arruebarrena alkatea izango da batzordeko burua, eta Txus Bilbao Hirigintza zinegotzia buruordea. Betebehar guztiak betetzen dituzten elkarteetara bidali dute batzordearen parte izateko gonbidapena. Erantzunak jaso eta ordezkariak aukeratu bezain laster abiatuko omen dute.

UDALTZAINGOAREN BABESA JASO ZUTEN 78 EMAKUMEK IAZ LEIOAN

Indarkeria jasan edo jasaten duten 78 emakumek jaso zuten Udaltzaingoaren babesa 2008an Leioan. Gainera, erasoak jasotzeko arriskuan dauden beste sei, uneoro babesten ei ditu. “*Egoera berezia daukatela-eta, babesa uneoro daukate, beraien etxeak zaintzen dituzte egun osoan*”, Ricardo Egiguren udaltzainburuak jakinarazi duenez.

AVANZADAREN AURRE-PROIEKTUA DENEN ESKU JARTZEKO ESKATU DUTE

Avanzada estaltzeko aurre-proiektua leioztarren eskura jar dezaten eskatu du Avanzada Estaltzearen Aldeko Plataformak, “*herritarrek egoki ikusten dituzten iradokizunak egin ahal izateko*”. Era berean, “*hedabideetan agertu barriak hauteskundeetako testuinguruan kokatutako amarrua ez izatea*” espero dute; hau da, “*aspaldi gertatu bezala, hitz politakaz, baina ekintza gutxigaz bizilagunei iruzur egiteko amarrua ez izatea*”.

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

BEST

ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
IMPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

— 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.

— Ingelesa 4 urtetik aurrera.

— Frantsesa DBHn.

— Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), askaria.

— Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...

— Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94 464 23 64 / 94 464 33 07

e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

16UK

UK 17

Aitziber Oliban > Euskara zinegotzia

“Kale-izendegia eta leku izenak asko etorri dira baserri izenetatik eta desanexio garaitik”

Udalerriko leku eta kale-izenak aldatzekotan dabilta Erandion, jatorrizko izendegia berreskuratu asmoz. Adinekoei eta herrian aspaldi bizi direnei galdetuz, ikerketa egin zuen Iratxe Lasak. Ondorioei jarraituz ematera doazen urratsen barri eman digu Euskara zinegotziak, Aitziber Olibanek.

—Udaleko toponimia barritu eta egokitzekotan zabiltzate, zertarako?

—Erandioko toponimiak hainbat eragin jaso ditu. Kale-izendegia eta leku izenak asko etorri dira baserri izenetatik, eta beste asko, desanexio garaitik. Konturatu ginen leku-izenen berezko forma galduz joan dela eta errotulazio barria egin zenean, desanexioagaz, ez direla izan behar ziren izenak. Orduan ikerketa egin zuen pertsona batek urte biko bekagaz. Ondorioen txostenak adierazten zituen ezberdintasun batzuk edo normalizazio falta izen batzuetan. Horiek normalizatzea da gure egitekoa. Txostenak Euskaltzaindiaren oniritzia ere jaso zuen, eta horrenbesteko argudio teknikogaz, aldaketok egitea egoki iruditu zitzaigun.

—Nola egingo duzue?

—Astiro-astiro. Izenen aldaketak ez dira oso erradikalak. Beraz, sentsibilizazio lanagaz nahikoa izango dela uste dugu. Barneratu



Liburuxka, web gunea eta ikastetxeetarako materiala prestatzen dabilta egitasmoa sozializatzeko

ditugu dagoeneko urtean-urtean ateratzen dugun gidako mapa txikian aldaketak. Sozializazio lanerako ere mapa barria aterako dugu, Udalerriko osoarena, bertan agertuko dira kaleen izen, zein leku edo mendien izen barriak. Interneten gunea ere prestatuko dugu, eta bertan agertuko dira adiera guztiak, baita ahozko modua ere. Horretaz gainera, liburuxka informatiboa aterako dugu, toponimo barriak eta zergatik aldatu diren, zein nondik datozen azalduko dugu. Bestalde, datorren ikasturtera begira mate-

rial didaktikoa aterako dugu ikastetxeetan gaia lantzeko.

—Errotuluak noizko aldatuko dituzue?

—Urte honetan zehar aldatuko ditugu hainbat arrazoi medio, dagoeneko aldatu beharra daudenak bakarrik. Lanak direla eta, apurtuta daudelako... Datorren urtean hasiko gara beste guztiak aldatzen. Esan beharra dago horrenbeste aldaketa ez direla sortu, eta beraz, espero dugu 2010ean zehar plaka gehienak aldatzea, 2011n ere lan horregaz jarraituko dugun arren. ○

Elizaren misterioak

Ikertu egingo dute Goikoako Andra Mari eliza, Erandio herriko iturburua



Goikoa auzora ongi etorria ematen du Andra Mari elizak

Goikoa auzoko Andra Mari elizaren azterketa historikoa eta artistikoa egingo du Eusko Ikaskuntzak. Erandioko iturburua da eraikina, eta horrek ere bultzatu du Udala ikerketa enkargatzera. Gotikoko “harribitxia” esan dio alkateak. Azterketa egiteko urtebeteko epea eta 6.000 euroko beka emango du Udalak. Eusko Ikaskuntzaren bulegoan aurkeztu beharko dute eskabidea ikerketa egiteko inteseraren dutenek, martxoaren 15a baino lehen.

Eliza XII. mendean eraiki zuten eta XVI. mende hasieran berreraiki, gotiko berantiar estiloan. XVII. mendean handitu zuten egungo eraikina eratuz. Hiru nabe dauzka, hainbat altueratakoak eta lau ataletan banatuta. Oinplanoan dauka gurutze latindarra. Baina

dorrea da elizaren elementurik adierazgarrienetakoa, itxura militarrekoa. Hori “*ohikoa zen garai hartako itsasertzeko elizetan*”, jakinarazi du Santiago Neira Kultura zinegotziak. Are gehiago, Plentzia, Ondarroa eta Lekeitoko elizak antzekotasunak dauzka.

Baina badauka beste berezitasunik. Izan ere, hiru sarrera dauzka, Goikoako auzotarrrentzat lehena, Leioa eta Getxokoentzako bestea eta Altzagako auzotarrrentzako hirugarrena. Kanpoaldean, barriz, Martiartu sendiaren omenezko hilobi monumentu ospetsua dago, Bizkaiko hilobi gotikorik garrantzitsuenetakoa, XV. mende amaierakoa. ○

Informazio gehiago:
www.eusko-ikaskuntza.org

ERANDIOZTARREN ARRAKASTA ANDOAINGO PIANO JAIALDIAN

Urrezko hiru, zilarrezko hamaika eta brontzezko hiru domina eskuratu zituzten Musika Eskolako pianojoleek otsailaren 14an eta 15ean, Andoaingo Piano Jaialdian. Guztira 17 ikaslek parte hartu zuen. Horrenbestez, “*esperientzia baikorra izan denez, prest daude hurrengo ikasturtean itzultzeko*”, esan dute Musika Eskolako arduradunek.

SEXU-AHOLKULARITZA MARTXOAN ERE ESKAINIKO DUTE

Aholkularitza-sexologikoa zerbitzua eskaini ohi dute drogomenpekotasun gelan, eta martxoko datak eman dituzte ezagutzera. Hilaren 13an eta 27an izango da. Sexualitate eremu zabalari buruzko informazioa jaso ahal izango dute erandioztarrek Mitxun Blanco Hidalgo sexologoaren eskutik, Biko Arloak lan taldeko partaidea.

Ordua eskatzeko:
sexaholkua@hotmail.com

PORTUGALERA BIDAIA ASTE SANTUAN

Apirilaren 8tik 13ra Portugalera bidaiatolatu du Gazte informazio Bulegoak. Martxoaren 10etik 18ra eman daiteke izena bertan, goizeko 9:00etatik 14:00ak arte. Bidaiak 18 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta lau pertsonarentzako lekua eska daiteke gehienez eskabide bakoitzean. Autobus bat aterako da, beraz, plaza kopurua mugatua da. Erandion erroldatuek 195 euro ordaindu beharko dute, eta Erandion erroldatuta ez daudenek, 240 euro; lehenengoei izango dute lehentasun osoa parte hartzeko. Martxoaren 23ko 14:00etan zozketatuko dute ordena ezartzeko letra.

Gazte Informazio Bulegoa:
Irailaren 23a plaza, 94 602 58 91

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37



Basolanak

- Zuhaitz landaketa
- Inausketak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategi zainketa
DEITU!

Tf. 94 467 17 13
FAX 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Sakelakoa
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES

Agur arazoei... **Tf. 902 54 08 54**
www.arlan.biz

ORAINDINO BADAGO IZENA
EMATERIK ESKIATZERA
JOATEKO BIDAIA

Martxoaren 6ra arte eman dezake izena eskiatzera joan gura duenak. Bidaia martxoaren 13tik 15era egingo dute, Gavarniera. Gazte Bulegoak antolatu du 18 urtetik gorako lagunentzat. Sopelan erroldatuta daudenek 40 euro ordaindu beharko dute, eta erroldatuta ez daudenek, 80 euro. Prezioaren barne daude autobusa, gau biko egonaldia Le Marquisesen, egun bitarako *forfait* txartela, pistetarako joan-etorriak, arduraduna eta aseguruak.

Izena emateko: **Gazte bulegoan,**
oij@sopelana.net edo **94 405 55 05**

MAITASUN HITZEK
BADAUKATE SARIDUNIK

Maitasun Gutunen V. Lehiaketako sariak banatu zituzten otsailaren 14an. Maite Maitea lehiaketan aurten honakoek irabazi dute, bakoitzak bere mailan: Amaia Azkorra Camargo *Querido Amor* gutunagaz (14 urte, Sopela), Zigor Olagorta Zarate *Ametza zuri-beltzean* lanagaz (16 urte, Berango), Amaia Uskola Mendieta *Zaldi ezpataren zaldunari* idazkiagaz (38 urte, Sopela) eta Ana Maria de Miguel Grijalbo *Soledad de Soledades* lanagaz (70 urte, Berango). Hitz goxoak Balentin Deunaz.

UGERAGAKO EMAKUMEAK
PREST DAUDE PEDALEI
ERAGITEKO

Ugeraga Kirol Elkartearen emakumeen txirindulari taldea aurkeztu dute. Nagusien eta gazteen mailatan banatuko da elkartea. Uci Lointek izango da nagusien taldeko izena, eta gazteena, Hotel Modus Vivendi. “*Gure helburua dena irabazteko borrokan aritzea izango da Euskal Herrian eta Espainian*”, S. D. Ugeragako presidente Emilio Ramosek esan duenez. “*Nazioartean bariz, etorkizunean garaipenak eskuratzeko oinarriak jarri gura ditugu*”, gehitu du.

LAIK
Taberna

Bentatu 2
48600 Sopela
Tf. 94 676 03 28

Bandera urdina
ikusiko dugu uda honetan **Arrietara eta
Atxabiribil hondartzetan**, beste behin ere



Osasuntsu daude Sopelako hondartzak aurten

Bandera urdina jantziko dute Atxabiribil eta Arrietara hondartzek aurtengo udan. Sopelako Udalarari eman dio AENOR elkarteak bere kudeaketa sarituz. Espainiako Normalizazio eta Zertifikazio Elkartea da AENOR. Udaletik zehaztu dutenez, "Bandera horrek ziurtatzen du hareatzetan egiten den kudeaketak ingurumena zaintzen duela, ISO 14001 arauak ezartzen duenari jarraituz".

Parametro bi nabarmendu dituzte saria jasotzeko garrantzitsutzat. Batetik, uraren kontsumoa %56,07 jaitsi zen

hondartzetan 2008an. Hau da, 2007an 35'35 litro ur kontsumitu zuen hondartzetara hurreratu zen pertsona bakoitzak; baina 2008an, kopuru hori nabarmen jaitsi zen, 13'33 litro ur erabili baitzuen hondartzazale bakoitzak.

Bestetik, zabor kopurua aipatu dute. Udalaren datuen arabera, hondartzetan pilatutako zabor kantitatea %61 gutxitu zen iaz. Erabiltzaile bakoitzak 0'26 kilo zabor egin zuen 2008an; urte bete lehenago oster, 0'68 kilo zabor pilatu zuen. Uda honetan hondartzetaz ez gozatzeko aitzakiarik ez da egongo. o

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Laurehun etxetik gora
Asu, Bareño eta Loiolan 490 etxebizitza eraiki
gura du Udalak, **178 babes ofizialekoak**



Hitzarmena sinatu eta 15 eta 18 hilabete bitartean hasiko lirateke etxeak eraikitzeko lanak

Loiola, Asu eta Bareño guneeetan 490 etxebizitza eraiki gura ditu Udalak, horietatik 178 babes ofizialekoak. Izan ere, hitzarmena egingo du Eusko Legebiltzarragaz, bertako Etxebizitza sailagaz, babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko. Hiru guneeetan dauzka lursailak Udalak babestutako etxeak egiteko.

Orain arte, bertan babes ofizialeko 123 etxe egitea aurreikusten zen, baina kopuru hori handitu dezaketela uste dute erakunde biek. “*Euskal Auronomia Erkidegoko Luraren Legeak eskaintzen duen aukera sakon aztertuko dugu, lursailetan ahal beste etxebizitza eraikitzeko eraikigarritasuna aldatu barik, hau da, Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorrari (HAPO) eragin beharrean, dagozkien zatikako planetan eraginez*”, adierazi dute Udaletik. Udalak asmoa dauka tramiteak aurrera ateratzeko, zatikako planetan aldaketa zehatzak egiteko. Hartara, babes ofizialeko etxebizitza gehiago eta txikiagoak egingo lituzkete. “*Horrek aukera ematen du etxebizitzan*

diseinua benetako beharrei egokitzeko, eta babes ofizialeko etxebizitzek eskatzen dituzten elkarbizitza unitateetako kideen kopuruari egokitzeko”.

Ondorioz eta beraien esanetan, Asu sektorean babes ofizialeko 50 etxebizitza egite-rik 78 egitera igaro daiteke; Bareñon, 50etik 70era; eta Loiolan, 23tik 30era, “*birdentsifkazio horri esker*”. Hortaz, gaur egun egin daitezkeen 123 etxebizitzatik 178 etxebizitzatara egingo litzateke jautzia. Horietako zati bat, 50 edo 60 etxe inguru, alokairu

**Eusko Jaurilaritzagaz
akordioa egingo du babes
ofizialeko etxeak sustatzeko**

sozialera bideratzeko asmoa dauka Udalak. Ohi denez, inbertsio handia eskatzen du tamainu horretako egitasmo batek. Zehazki, 21'3 milioi eurotik gertu egon liteke lurra erosteko inbertitutako litzatekeen diru kopurua. Hitzarmena sinatu eta 15 eta 18 hilabete bitartean hasiko lirateke etxeak eraikitzeko lanak. o

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6 eta Iberre, 9/ 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Ituribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

HILABETE SOLIDARIOA
ETA MERKATU TXIKIA
LUDOTEKAN

Berangoeta Kultur Etxeko ludotekan elkartasunari eskainiko diote martxoa. Tailerretan egindako gauza guztiak merkatu txikian saltzeko izango dira, hilabeteko azken ostiralean. Han batutako dirua Gobernu Kanpoko Erakunde bati emango diote. Lehen aldiz egingo dute merkatua, eta umeak izango dira protagonista; saltzeko materiale guztia beraiek egingo dute eta. Gainera, merkatua iragartzeko kartela, gonbidapena eta iragarkia egiteko lehiaketa antolatuko duten pentsatzen ari dira ludotekako arduradunak.

GOAZEN MADRIL ETA
TOLEDO EZAGUTZERA,
MARTXOAREN 18TIK 22RA

Familia osoarentzako beste bidaia bat antolatu du Berangoeta Kultur Etxeak; Madril eta Toledora izango da oraingoan. Martxoaren 18tik 22ra egingo dute, asteburuko zubia baliatuz. Berangoetatik aterako da autobusa 18an, eguaztenean, 18:30ean, hartara eguen osoa aprobetxatu ahal izateko. Madrilén geratuko da lehenik, eta Prado museoa, Legebiltzarra, Espainiako Errege-etxea bisitatuko dituzte. Barikuan joango dira Toledora. Katedrala eta Santo Tome eliza ikusiko dituzte. Zapatua Faunia parkean igaroko dute. Domeka arratsaldean itzuliko dira Berangora.

Informazio gehiago: Berangoeta Kultur Etxea edo www.berango.net

Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Auditorioa Santa Anan

Lehengoz **eskolen eraikina bota** eta **erabilera anitzeko gunea egingo** dute, auditorioa barne



Santa Ana Kultur Etxearen alboan egingo dute eraikin barria

Aurten eraikiko dute auditorioa Santa Anan, erabilera anitzeko gunearen barruan. Auzoko lehengo eskola dagoen lekuan egingo dute, eskola eraitsi eta kultur etxeari lotuta. Orain arte, herriko kultur elkarteek erabili dituzte eskolako lokalak. Eraikin barriak, osterat, taldeon egitasmoak gauzatzeke aukerak zabalduko ditu; oraingo lokalak boskoitza izango da etorkizuneko, 1.500 metro koadrokoa. Horrela, *“kultur elkarteek babes handiagoa izango dute”*, Udaletik jakinarazi dutenez. Gunean lokalak utziko dizkiete horretarako.

Solairu bitan banatuko da gunea.

Auditorioa behekoan lekutuko dute, baita gimnasio txiki bat ere. Aldagelak, garajea eta biltokia ere bertan kokatuko dituzte. Bigarren solairuan egingo dituzte elkarteentzako gelak.

Auditorioak 180 lagunentzako lekua izango duela iragarri dute. Antzestokiak, barriz, 100 metro koadro; ikuskizun txikiak, zein ertainak muntatu ahal izango dituzte bere gainean.

Espainiako gobernuaren diru-laguntzagaz ordainduko dute eraikin barria; izan ere, *“krisiaren aurkako”* laguntzaren %75 gordeko dute egitasmorako, 715.000 euro. ○

Itsasadarraren Aldeko Plataforma > Kirol portua

“Itsasadarraren erabilera bultzatu gura dugu, jendea erakartzeko”



Isabel Zarauza alkatea eta Jesus Espinoza zinegotzia

Aho batez onartu zuten urtarrilaren 26ko udalbatzan “Plentziako Itsasadarraren aldeko plataforma”ren eraketa. Isabel Zarauza alkatea izango da presidentea; horregaz batera, herriko kirol talde, elkarte kultural, alderdi politiko eta merkatariek parte hartzea gura dute ekimenaren bultzatzaileek, *“Ahalik eta jende gehien batzea da gure asmoa; herritarren ekarpenetara zabalik gaude”*, azaldu digu Jesus Espinoza zinegotziak. Dagoeneko jende asko hurbildu zaie laguntza eskaintzeko edo parte hartzeko prest. Dena den, oraindik ez dute plataforma legalki osatu: *“Lanean gaude eta laster erroldatuta egotea espero dugu”*.

Itsasadarreko amarratzak, sarbideak hobetzea eta urak denon gozamenarako erabili ahal izatea dira plataformak defendatuko dituen zutabe nagusiak: *“Ezin dugu onartu itsasontziak dauden moduan amarratuta egotea. Bestalde, itsasadarraren erabilera bultzatu beharko genuke, kirol ekintzak, zein*

beste motatakoak antolatu ahal izateko. Horrela, jendea erakar dezakegula uste dugu. Itsasadarria Plentziako ikurretako bat da, eta horren hobetzea turismoarentzat mesedegarri izan daiteke”. Javier Goitia Blanco ingeniariak itsasadarraren egokitzapenerako proiektu proposamen bat egin du dagoeneko. Horretan, irtenbide bi aurkeztu ditu: alde batetik, itsasontziak bazter batean jar-

«Plataforman ahalik eta jende gehien batzea da gure asmoa»

tzea, eta bestetik, kirol portua eraikitzea “Kakarraldo” taberna zegoen lekuan, hondartzara ondoan. Hala ere, udaletik, hori proposamen bat baino ez dela azpimarratu gura izan dute: *“Oraindik ez dugu ezer zehaztu. Herritarren ideiak entzun gura ditugu lehenago”*. Orain arte, portu ardura-dunakaz batu dira eta proiektua aztertzen dagoen talde tekniko osatu dute. ○



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

Tf: 94 676 07 15

BASTARTENA
URDULIZ
Telefono: 940 701 120

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



VIEJO CAFE

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

ARKU JAURTIKETAN ETA TIROLINAN IZEN-EMATEA

Gazte *aktiboa* programaren barruan, arku jaurtiketa eta tirolina ikastaroak antolatu ditu Gorlizko Kultur Etxeak. 14 eta 30 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute; saioak martxoaren 21ean eta 28an egingo dira Gorlizko aterpetxean. Martxoaren 16a arte egongo da zabalik izena emateko epea; gura duenak Gorlizko Kultur Etxera hurbiltzea dauka.

PLENTZIAKO JAIK 2009 LIBURURAKO AZAL LEHIAKETA

Plentzia Telebistak, Udalaren laguntzagaz, *Plentziako Jaiak 2009 liburuaren azalerako I. lehiaketa* antolatu du. Apirilaren 8a arte egongo da zabalik lanak aurkezteko epea. Diseinu bakoitza gutun-azal batean aurkeztu beharko da egilearen datu pertsonalakaz batera Goñi Portalen. Gutun-azalean “Plentziako Jaiak 2009” testua agertu behar da. Lanak, euskarri zurrun, zein digitaletan aurkez daitezke. Irabazleak 200 euroko saria jasoko du.

LUXUZKO ETXEBIZITZAK GORLIZEN

Neinor enpresak Bikani eraikuntza enpresari esleitu dio Gorlizen luxuzko etxebizitzak egiteko proiektua. Beste talde bat zen egitasmo hori aurrera eramatearen arduraduna, baina diru faltagatik, bertan behera utzi behar izan zuen. 31 etxebizitza kolektibo eta 24 txalet egingo dituzte. 35 milio euro inbertituko dituzte.

URDULIZ

2012an zabaldu gura dute ospitale barria



Udalak utzitako lurretan eraikiko dute ospitalea, metro geltokitik 200 metrora

Gurutzetako ospitaleko lan karga txikitzen lagunduko du Urdulizen egingo duten ospitale barriak. Gabriel Inclan osasun sailburuak eta Juan Olea alkateak proiektuaren nondik norakoak publiko egin zituzten otsailaren 8an. 33.129 metro koadro izango ditu eraikinak, eta 40 milioi euroko kostua suposatuko du. Urdulizko Udalak utzitako lurretan eraikiko dute ospitalea, metrotik 200 metro ingurura; 2012rako amaituta egotea aurreikusita dago.

Eskuinaldeko 100.000 biztanlek erabili

ahal izango du ospitalea eta bertan, larrialdiak, kirurgia, espezialisten kontsultak, froga osagarriak eta errehabilitazio zerbitzuak edukiko dituzte. Izango dituen zazpi ebakuntza-geletan, urtean 3.200 ebakuntza egingo dituzte batz bestea; larrialdi zerbitzuak, ostera, 50.000 pertsona inguru hartu ahal izango ditu. Dena ondo badoa, abenduan hasiko dira lanak. Eraikinaren ezaugarri nabarmenenak soiltasuna eta funtzionaltasuna izango dira; ingurugiro irizpideak kontuan hartuko ditu. ○

Mar. 2 - Mar. 16

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Raul Hernandez Barojaren argazkiak.** Martxoaren 9tik 21era, Algortako erakustaretoan. Astegunetan, 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:30era; eta zapatuetan 10:00etatik 13:00etara.
► **Dora Salazarren eskulturak eta Jorge Garciaen margolanak.** Erromoko erakustaretoan, martxoaren 14ra arte. Astegunetan, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara; eta zapatuetan 11:00etatik 13:00etara.

LEIOA

► **Remapping Lamiako, Olga Ruiz.** Martxoaren 5etik apirilaren 13ra, Kultur Leioan.

URDULIZ

► **David Mateuren pintura erakusketa.** Martxoaren 3an 21era.

MUSIKA

GETXO

► **Udaberriko kontzertuak.** Martxoaren 10etik 14ra, Algortako Redentor elizan, 20:00etan eta doan.

LEIOA

► **Blues Jazz zikloa.** Martxoaren 13an Kafe Ambigu aretoan, Kultur Leioan, 22:00etan. Sarrera 6 euro.

ANTZERKIA

GETXO

► **Kontularien kluba.** Martxoaren 13an, Algortako Kultur Etxean, 19:00etan. Doan.

URDULIZ

► **Txitxarra eta inurria.** Martxoak 6.



► **zinema**

Film laburrak euskaraz Astrabuduan

Berbots Erandion Euskarazen eskutik dator Astrabuduko Film Laburren emanaldia euskaraz. Ondoko film hauek emango dituzte: *Kabla* (E. Rodriguez, N. Arozena, G. Rodriguez, E. Sanchez, G. Sanchez, A. Uribe eta M. Sukunza), *Lo bakarik* (Iban del Campo Uribarrena), *Musika* (Asier Urbietan San Martin), *Berde* (Jose Luis Barredo, Iñigo Garcia), *Egiatik gezurrezko bizitzara* (Ostegunearn afaria zure kontu taldea), *Poema baten irakurketa Euskal Herrian* (Xabier Iñarrairaegi, Karlos Eriz), *Ondo ibili* (PuntutapArte Produkzioak taldea) eta *Bankuaren lapurreta* (I. Aranbarri, O. Arriola-Bengoa, K. Blanco, T. Fernandez, J. Larrañaga, T. Larreategi eta J. Martinez). Informazio gehiago: www.berbots.org.

• **Non:** Josu Murueta Kultur Etxean • **Noiz:** martxoaren 11n, 19:30ean

LEIOA

► **Dantza zirkuitua: Papiro... flexia.** Circle of Trust & Logela taldea. Martxoaren 5ean 20:00etan, Kultur Leioako Auditoriumen, 6 euro.
► **Dantza zirkuitua: Visto lo visto.** Aracaladanza taldea. Martxoaren 7an 19:00etan, Kultur Leioako Auditoriumen, 6 euro.
► **Dantza zirkuitua: 5 piezas para tomar con un cafe.** Megalo Teatro Movil taldea. Martxoaren 7an 19:00etan, Kultur Leioako Auditoriumen, 6 euro.

ZINEMA

URDULIZ

► **Zineskola.** Martxoaren 5ean, 11:45ean.
► **Revolutionary Road.** Martxoaren 14an, 20:15ean, hiru euro.

BESTEAK

MARTXOAK 8

► **Bizikletada.** Sopelatik Algortara, goizez. Manifestazioa eta bazkaria.

► **Barrikan kafe tertulia: Munduko emakumeak.** Martxoaren 11n, 18:00etan.

GETXO

► **Koska irratia**ren jaialdia. Denboraldi barriaren aurkezpena. Feos pero majos musika taldeak kontzertua eskainiko du, luntxa, antzerkia eta *playbacka* egongo da. Martxoaren 14an, Itzubaltzeta Gaztetxean, 20:00etan. Sarrera doan gonbidapenagaz.

ERANDIO

► **Korrikaren aurkezpena.** Martxoaren 6an.
► **Dantza espresiboa** ikastaroa. Martxoaren 3an, 10ean eta 17an, 19:00etan, Bekoa ikastetxean.

BARRIKA

► **Ballet eta Kung-Fu.** Martxoaren 7an eta 14an, 11:00etan.

GETXO

► **Mahaingurua: Emakumeek sortutako komikiak.** Martxoaren 5ean, Algortako Kultur Etxean, 19:00etan.

PLENTZIA

► **Diaporama: Elbrus Espedizioa 5.642 m.** Hizlaria: Marimendi E. Taldea. Martxoaren 5ean 20:00etan Goñi portalen.
► **Zaintzaren zaintza tailerra.** Martxoaren 9an, 18:30ean, Goñi portalen.
► **Joskintza ikastaroa gazteentzat.** Ekainera arte, eguaztenetan 19:00etan. Izena eman martxoaren 12a baino lehen.
► **Mugikortasun Iraunkorraren Planaren aurkezpena.** Martxoaren 11n Goñi portalen, 19:00etan.

SOPELANA

► **Eskiatzera irteera.** Martxoaren 13tik 15era, Gazte Bulegoak antolatuta. Izena eman behar da martxoaren 6a baino lehen.



Txikien aratusteak

Lan gogorra egin zuten Uribe Kostako hezkuntza zentroetako ikasle, irakasle eta gurasoek aratusteetarako mozorroak aukeratzen eta fabrikatzen. Getxon, Bihotz Alai eta Telletxe enparantzetan batu ziren ehundaka gaztetxo. Astronautak, raperoak, itsas izarrak eta Euskal Inauterietako pertsonaiak ikusi ahal izan genituen; guztiak elegante jantzita eta paperean ondo sartuta.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





GETXOKO UDAL LIBURUTEGIAK. UTZITAKO ARGAZKIA

Inauteriak ez dira gauza barria

Ume asko ikus daitezke UK-ko aurreko orrialdean, aurrengo inauterierako irudiak dira. Baina moztarria ez da gauza barria, irudi honi begiratu baino ez dago. Duela hainbat hamarkadako umea da, eta aurren Itzabalzeta-Erromon legez, indiarren arima agerrarazi zuen.

[berbetan]

“Ama Extremadura aita Zamoratik, abuela ta abuelo haiek aurretik. Herri hontan sustraitzen asmatzeagatik, nik’e maita dezaket guztien gainetik. Euskeraz badakit, bertsoz darabilkit, dena zuengatik, halaxe dagokit, denek kantatu dute nere ahotik”. Bertso hura eskaini zien Jon Maiak senideei 1997ko Bertsolari Txapelketako finalean. Urretxun jaio zen 1972an, aiton-amonak eta gurasoak Euskal Herrira etorri eta bertan errotu ondoren. Milaka lagunen historia bera da. *Bidaia intimoak* dokumentalak ere halako lau historia kontatzen du. Maiak zuzendu du, AEKren Korrikaren harira, “Ongi etorri” esan gura diete-eta “euskaraz bizi nahi dugunon herrira”.

Jon Maia

Korrika euskararantz

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Rami, Mixele, Tereixa eta Jesus Mariren bidaia intimoak jaso dituzu dokumentalean, esperientzia berria? —Bai, AEKtik etorri zitzaizkidan ea Korrikarako zerbaitetan laguntzeko prest nengoen. Lelo *Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira* da. Bazekiten nire familia kanpotik etorria dela eta nire perfi-lagatik, gai honen inguruan aritu naizelako. Dokumentalarena bururatu zitzaidan, lau pertsonaren euskararainoko bidaia nolakoa izan den kontatuz. Gero zehaztu genituen perfilak: lehengo etorkin bat, oraingo bat, eta Frankoren garaian euskara galdutako bat eta orain galdutako bat, ama hizkuntza euskara izanik. Jende bila hasi ginen. Gako batzuk ere agertu behar ziren: konpromisoa, kontzientzia, identitatearen bila... Azkenean lau hauekin egin dugu, eta oso gustura.

—Beraiek egin dute urratsez urrats bidaia euskararantz; hori bilatu nahi zenuen? —Nik bidaia intimoa planteatu nahi nuen, bizitzaren bidaia. Bidaiairen termi-

nologia erabili, mapa intimo batzuk sortu, eta azken finean, beraien bizitzetan sartu, jatorriraino joan, beraien aurrekoenganaino; eta ikus dezagun non hasten den dena, non galtzen den, non lortzen den, zeintzuk diren gakoak... Lau pertsona anonimo dira, garbi neukan hori, perfil horietan sartzen den milaka eta milaka pertsona ordezkatu ahal izateko, eta planteamendu horretan, bizitzaren bidaia kontatzea beste milaka pertsonaren kasuak ordezkatzuz.

—Bai, badirudi milaka euskaldunen historia dela, jende askok ikusiko duela ordezkatuta bere burua.

“Dokumentala lau pertsona anonimoren bidaia da; milaka eta milaka pertsona ordezkutzen dute”

—Baietz uste dut. Agertzen diren klabeak, zergatik euskara ikasi edo galdu zuten, nik uste jende askori ekarriko dizkiola gogora bere bizitzako pasarteak. Adibidez, Rami bezalako oraingo etorkin batentzat,

Goizueta bezalako herri batean, euskara gabe ia ezinezkoa da integrazioa. Hori etorkin askori gertatuko zaio. Hizkuntza ez da arazoa, baizik eta balorea eta integratzeko zubia. Edo lehen etorritako etorkina, Tereixa. Galiziatik etorri, eta dioenez, berea defendatzeko hemengoa defendatzea zen biderik onena. Identitate bila, su-traiak berretsi eta galiziar identitatea indartzeko, euskaraz ikasi behar zuen. Edo Mixele, orain 32 urte ditu, egun oraindik ere Iparraldean gazte askori gertatzen zaiona gertatu zaio, kontzientzia falta etxean. Frantses eskolara bidali, inork behartu ez

euskaraz hitz egitera, eta poliki-poliki, hizkuntza galtzea. Hortik abiatzen da berriro hizkuntzaren bila, kontzientzia pizten zaion unetik. Eta gero Jesus Marirena. Frankoren garaiko eskolan euskaraz ezin



ikasía, euskararen desprestigio soziala, lotsa, sentsazio intimo horiek. Hor agertzen dira klabeak, jende askori seguru antzeko gauzak gertatu zaizkiola.

—**Badirudi garai batean bakarrik gertatzen zela, baina gaur egun ere ematen dela ikusten da dokumentalean.**

—Bai, Iparraldean nabarmena da hori, euskara galtzen ari da, kontzientzia faltatik dator asko. Hegoaldean baino euskaldun kopuru altuagoa dago Iparraldeko eremu gehienetan, baina belaunaldi berrietan erabat galtzen ari da. Denek dute ama hizkuntza euskara, baina galtzen ari dira. Mixele neska gaztea da eta hori gertatzen zaio, oraingo gazte askori bezala.

—**Korrikak dio *Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira*, zuen senideei ere esan zieten ongi etorri gurera iristean?**

—Bueno, haiek ez zekiten ondo nora zetozen ere, orain Afrikatik datorren batentzat bezala zen hau. Orduan Extremaduratik etortzea oso urrutitik etortzea zen, beste mundu batetik. Ez zuten inolako erraztasunik izan hemen integratzeko, milaka lagun gertatu bezala. Frankoren garaia zen, diktadura, hemengo kultura eta hizkuntza pertsegituak. Gainera, bizitza berri bat hasi oso egoera txarrean, lehengo enpresarien esklabo hutsaren sistemarekin; ia ezinezkoa zen integratzea. Eta errezelo asko zegoen kanpotik zetorrenarekin, batez ere Espainiatik zetorrenarekin. jende txartzat zituzten bertokoek. Orain ere gertatzen da egungo etorkinekin. Ez zuten izan inolako erraztasunik integratzeko. Baina ahalegin indibidual handia eginez eta kontzientzia politikotik eta, jende asko integratu zen.

—**Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean agerian utzi zenuen zure familiaren historia, ordura arte jendeak ez zekien.**

—Armairutik atera nintzen... Ez zekien, ez, jendeak. Ingurukoek bai, baina bertsozaleak ez zuen imajinatzen. Kendu nahi izan nituen lotsa, konplejuak, pedigri falta hori. Maketo, belarrimotz eta kontzeptu horien beldur nintzen eta ezkutatuta neukan. Erabaki nuen finala momentu ona zela hori

gainetik kendu eta esateko hemen gaudela, gulako jendea ere posible dela bertsolari izatea eta Euskal Herriko finalean kantatzea.

—**Emozioz bizi izan zenuen?**
—Bai, sentitzen nuen ni nintzela nire aurrekoek emandako pausuen eta hartutako erabakien ondorioa. Nire aitona errepublikazalea izan ez balitz, ez balu izan kontzientzia politiko jakin bat, hemen ez zate-

“Konturatu nintzen senideei zor niela nire identitatea, eta horrela biribiltzen zela familiaren ziklo bat”

keen zapalduen bandoan kokatuko. Eta gure amaren familiak ez zukeen hartuko ezkertiar eta euskaltzale kontzientzia aitoren presentziarik gabe. Extremefia batek eta zamorano batek erabaki zuten semeak euskaldunak izatea, 1975ean, eskolara bidali nindutenean. Konturatu nintzen nire identitatea zor niela, eta horrela biribiltzen zela ziklo bat gure familian, Albazeten hasi eta Donostiako belodromoan amaitu.

—**Belodromoa eta gero piztu zitzaizun gogoa historia osoa kontatzeko, *Rio-mundo* idatzi zenuen-eta?**

—Final hura prestatzean hasi nintzen gure familiaren historiaz kontzientzia hartzen. Ordura arte ez nuen inoiz hausnartu. Gero izan nuen luzeago kontatzeko gogoa, euskaraz, euskaldunek jakin

“Euskal Herriaren banaketa politikoa eta kulturala Frankoren garaiko immigrazio kudeaketaren ondorio da”

dezaten etorritako milioi erdi immigranteak, ezin direla epaitu estereotipo eta klitxeokin hain erraz: maketo, koreano..., gehienak gerrako galtzaileak izan zirelako eta bizitza berri bat hastera etorri zirelako. Bertsio hori eman nahi nuen.

—**Trenak ekarritakoen historia kontatu zenuen beraz, hura kontatzea falta zen?**

—Nik uste dut falta zela, inork ez zuela kontatu eta hobeto kontatu beharko dela historia liburuetan. Egun Euskal Herriak bizi duen barne egoera, banaketa politikoa eta kulturala garai hartako immigrazio horren kudeaketa txarraren edo intentzionatuaren ondorio dela uste dut. Erabat kointziditzen du erdal poltsa eta immigrante herriak, eta euskal kultura bizi, zein eza-

gutzen ez duten herriak eta immigrante horien herriak kointziditzen dute erabat. Ez zegoen integrazio estrategiarik, diktaduraren zen... Oraindik banatuta gaude bi komunitate horiek bi bloke handitan. Irakurketa zuzena egin behar da, eta oraingo immigranteekin gauza bera gerta ez dadin. Baina uste dut gertatuko dela, ez dagoelako integrazio estrategiarik, ez Jaurilaritzatik ez ezer. Ez da Euskal Herria hartzen subjektutzat. Gure identitatetik kanpo gelditzeko arriskua du hainbat etorkinek. Espainiara bizi berri bila datoz, baldintza oso kaxkarretan, eta inork ez die esaten non dauden ez zer herri den hau, bertako hizkuntza, kultura... Seme-alabak masiboki matrikulatzen dituzte erdal erduetan, eta ez da beraien kulpaa, gurea da gehiago. Geuk behar dugu jende hori eus-

kaldun izatea, geu gara txikiak eta gutxi, gure kulturara hurbil daitezen bidea egin beharko genuke. Lehengo haiekin ez genuen egin eta seguru asko hori gertatuko zaigu orain datozenekin. Uste dut ez dugula ikasi gure historiatic.

—**Ez dakit zure familiaren kontuagatik ote den, hara eta hona ibili zara beste egi-**

tasmoetan ere, *Apaizac Obeto* espedizioa, Karidadeko Benta musika taldea...

—Ez, beti izan naiz nahiko saltseroa, beti prest beste zerbaít ikasteko, nireak ez diren terrenotan aritzeko. Azkenean denak dira sorkuntzaren eta komunikazioaren aurpegiak, kantatzea, abestea, idaztea... Orain dokumentala. Beharbada hau izan da nire arlotik kanpoko erronkarik handiena. Proiektu handiagoa, ardura gehiagorekin, agian hau izan da bertigo gehien eman didana. Saiatzen naiz egiten nire ustez egin beharreko gauzak, probetxuzkoak edo ekarpen bat egingo diotenak herri honi. Hori dira aipatu guztiak edo Karidadeko Benta ere, kanpoko musikak, kontatzen dituen istorioak, ordura arte egin ez ziren nahasketak... Saiatzen naiz egiten nire ekarpena herri honi, baita bertsotan ere, eta aldi

berean erakargarriak izan daitezela, seduzitzeko balio dezatela, artea izan dezatela.

—**Beraz, identitate eta konpromiso kontua da?**

—Bai, horrela hezita nago, beti sentitu naiz konprometituta. Munduan leku bat eman dit euskarak eta Euskal Herriak. Zorretan sentitzen naiz. Hezita nago nigan soilik ez pentsatzen, baizik eta zer eman

“Bertsolaritza da nire bizitzaren enborra, hortik ateratzen dira beste adarrak”

herri honi bueltan, horrenbeste eman dit eta! Ez banintz euskalduna izango, ezin nintzateke izango, ez nituzke egingo horrelakoak. Konpromiso kulturala, politikoa beti dauzkatz presente.

—**Horrelakoetarako tartea izaten jarraituko duzu?**

—Baietz uste dut, burua beti martxan, eta gauzak eskaintzen dizkidate. Pentsatzen dut jarraituko dudala gauza desberdinak egiten, horrek dibertitu egiten nau. Ez zait gustatzen ikasi dudana horretan bakarrik gelditzea. Zortziko txikia nola egiten zen ikasten hasi nintzen duela 25 urte eta

orain dokumental bat egin dut. Nahiko nuke horrela segitzea, baina bertsolaritza ahaztu gabe. Hori da nere bizitzaren enborra, hortik ateratzen dira beste adarrak, baina hori da nirea. ○

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
Kalea & zenb.....Herria.....
e-mail.....Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bat euro
Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37



Tibet, itxaropenaren iturri

Uribe Kostako argazkilari baten irudiak dituzu 152. aleko fotografia atalera ekarri ditugunak. Plentzian bizi da Alberto Diaz Calvo. Munduko bazter askotan ibili da, kamara eskuan, hango jendeek eta paisaiek eskaini diotena gordetzen. “Tibet, itxaropenaren iturri” bilduman, Mecon ibaiaren bazterretan aurkitu dituenak batu gura izan ditu. Ale honetan daukazuna, zati txiki bat baino ez da; izan ere, inguru horretan aurkitutakoak argazki bihurtzen jarraitzen du Diaz Calvok.
www.albertodiazcalvo.es

Argazkiak: **Alberto Diaz Calvo**









etorri
eta
ikusi!!

ORIXA

liburutegia

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalegatze bat)
Tf. 94 491 23 79
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

**Etxera
eroango dizugu
gasoleoa**

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure erosketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

GORLIZ IRRATIA

Urbe Kostak Irratia 107.8 FM

www.gorlizirratia.com

[liburuak]

Eztabaidak Bilbon

Bidebarrieta liburutegiko **“Eztabaidak Literaturarekin”** ekimen interesgarria

“Liburua eta literatura sustatzeko asmoz” Bidebarrieta Liburutegian (Bilbo) sortu den kulturari begirako Bidebarrieta Kulturgunea esparruaren barruan jaio zen iaz “Eztabaidak Literaturarekin” ekimena. Antolatzaileen esanetan, Bilboko Udaleko *“Kultura eta Hezkuntza Sailaren ekimen hau idazleengana hurreretzeko era barria eta barritzailea da, aldeztu aurretik aukeraturako aztergai bati buruz berba egiteko gonbita luzatzen diena. Idazle bakoitzaren azken lana aurkeztu beharrean, horixe izaten baita jendeak idazleak harremanetan sartzeko duen aukera gutxietako bat, inakurleen interesekoak izan daitezkeen gaiak eztabaidatzea proposatzen die”*. Iazko lehen edizioaren

«Martxoan irakurtzeko eta idazteko ekintzaz jardungo dute Atxagak eta Iturraldek»

arrakasta ikusita (“1.300 lagun inguru” hurreratu zen), aurtengo urtarrean bigarren edizioa ipini dute martxan. Hilean behin (martitzenez, 19:30) egiten diren topaketetara aurten dagoeneko Toti Martinez de Lezeak eta Jose Luis Corralek osatzen duten bikotea (eleberririk historikoaren ganean berba egiteko) eta Kirmen Uribe eta Vicente Molina Foixek osatuta-



Bernardo Atxaga (Jose Irazu, Asteasu 1951)

koa (fikzioaren mugak hizpide) gonbidatu dituzte. Hilaren 17an irakurtzeko eta idazteko ekintza izango dute berba (euskaraz) Bernardo Atxaga eta Joxemari Iturraldek, apirilaren 21ean Espido Freirek eta Rafael Chirbesek eskainiko dute berbaldia eta maiatzaren 19an Ramon Chok eta Ignacio Ramonetek globalizazioaz, eta horrek artean duen eraginaz jardungo dute.

Edizio honen bigarren hiruhilekoa ekainean amaituko da, eta iraletik abendura arteko bitartean garatuko da hurrengoa. ○

Informazio gehiago:
www.bilbao.net/bibliotecas

liburuak



Solo un muerto mas
Ramiro Pinilla
Tusquets

Gerra ostean, kokatu du Ramiro Pinillak bere azken eleberria. Sancho Bordaberririk liburutegia zabaldu barri du. Hala ere, bere ametsa idazle izatea da. Horretarako, Getxon gerra aurretik gertatutako hilketaren baten inguruan ikertzen hasiko da. Intriga da nagusi.



Habitat
Katixa Agirre
Elkar

Etxeetan gertatzen direnak ipuin bihurtu ditu Katixa Agirrek. Pertsonaiek goxo ez den bakardadea pairatuko dute, hain zintzoak ez diren maitasun istorioak biziko dituzte, mudantza etsigarriak eta bisita deserosoak agoantatu beharko dituzte.

Basakick kluba

Boxeo, kickboxing, fullcontact, K-1 etab. eskolak **Erandio, Sopela eta Lamiakon**



Basakickeko kideak. Informazio gehiago: www.basakick.com / 675 71 31 62

Jaiobarria da oraindino Basakick kluba, iazko uda aurretik sortu zuten Jabi Perezek eta Itziar Onaindik. Ostera, hasigarrien esperientzia baino handiagoa du, *“C21 kluba nuen lehen, baina ni Erandion eta Itzi Sopelan eskolak ematen hasi ginenez, denak batean elkartzeko asmoz sortu genuen Basakick”*, adierazi du Perezek. Biek parte hartu dute txapelketetan; Onaindik oraindino ere lehiatzen jarraitzen du, eta Perezek 10 bat urte daroaz kirolariak txapelketetarako prestatzen. Alor bitarako eskaintza dute: aisialdiko kirola deritzona eta txapelketetarako prestaketarena. Boxeo, fullcontact, kickboxing, K-1 eskolak eskaintzen dituzte besteak beste Erandion, Sopelan eta orain dela gutxi Lamiakon ere, eta haur-gazteek eskolok euskaraz jasotzeko aukera dute.

Horrez gainera, hainbat egitasmo dardabilte buruan, besteak beste: kontaktu kirolak eskolaz kanpoko jardueretan sar ditzaten bultzatzea (kasu honetan ukipen barik hasien dira eskolak); bazterketa arriskua jasan dezaketenentzako eskolak eskaintzea, *“eurei sari legez eskaintzea horiek, beste alderdi batzuetan izandako jarrena-jokabide onagatik; eskoletara gaztetxo asko etortzen da, kirolen*

bidez zelanbait bideratzen lagundu ahal diegula”, dio Perezek; eta azkenik, gau-lehiaketan antolaketa sustatzea, *“txikiak badira ere, milioiak behar dira eta diru-laguntzak beharrezkoak; ikusleria bultzatzeaz gainera, lehiatu gura duten gazteei ere aukera eskaintzen diegu”*. Kirol hauek ezagutaraztea eta bultzatzea da euren asmo nagusia, *“kontaktu kirolak direnez, ospe txarra izan dute, jendearen ezjakintasunagatik ere, eta erakundeek eta enpresa pribatuak ez dute sustapen lanetan laguntzarik eman gura; ospe txar horregaz amaitu gura dugu ezagutaraztearen bidez”*. Horren albotik, Boxeoko Euskal Federazioak antolatutako Euskadiko Txapelketa (otsailak 14-15, Sopela) sustatzeaz arduratu dira, Sopelako Udaren laguntzagaz. *“Gustura lotu gara; 90 bat lehiakide, andrazkoetan borrokaldi bakarra egin bazen ere, 80 bat borrokaldi... Bizkaian egiten den lehenengoa izan da, lehiakide gehienak bertokoak izan ziren, eta lehen egunean pabilioia gainezka egon zen!”*. ○

«Kontaktu kirolak direnez, ospe txarra izan dute... horregaz amaitu gura dugu»

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l. SERVITEC

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Olga Ruiz > argazkilaria eta Remapping Lamiako erakusketaren egilea

“Erakusketaren narratiba ulertu eta zerbait probokatu gura du ikusleagan”



Leioako Lamiako auzoan dauka lan-estudioa Olga Ruizek

Kultur Leioako erakustaretoan ikusgai dago Olga Ruiz getxoztarraren argazki erakusketa, *Remapping Lamiako*. Apirilaren 13ra arte goza daiteke auzoaren bestelako ikuskeraz; izan ere, bertako emakumeek osatzen dute Lamiakoko mapa berezia, beraiek dira narrazio-ardatz. Leku fisiko, psikologiko edota fikziozko batera daramate; emakume bakoitzak beste emakume baten isla aurkezten edo islatzen du.

—Lamiako *birmapeatu* duzu erakusketa honetan, zertan datza?
—*Remapping Lamiako*, ingelesezko terminologia erabili dut euskaragaz konbinatzeko gero. Asmatutako hitza da *remapping*. Barriro mapeatu esan gura du. Ohiko mapa batek elementu kartografikoak eskaintzen ditu, nirea bestelakoa da; geografia humanoagoa da. Ibilbide desberdina da. Lamiakoko emakumeak erabili ditut nire subjektibotasunaren arabera, kartografia eta ibilbidea, benetakoa eta fikziozkoa nahastuz, auzoa erakusteko.
—Zein duzu helburua?

—*Remaping Lamiakoren* oinarritzko helburua liburu bat osatzea zen, eta iaz argitaratu genuen. Narratibak eskaintzen dituen baliabideakaz jolastu dugu; irudiena, zein hitzena. Hitz poetikoek balore barriak gaineratu diezazkiekete irudiei. Orain parte hartu duten emakumeak erabili ditut, eurak dira-eta garrantzitsuena, eta narratiboki garatu, zentzua eduki dezan. Erronka barria da, horregatik deitu dut *Remaping Lamiako XXL*, zabaldutako bertsio gisa. Emakumeak eta lana gaia kokatu dut.
—Ohiko leketan hartu zenituen irudiak?
—Beno, zortzi emakumeak beraien ohiko

testuinguruan, zein estudioan ateratzea zen proposamena. Orain beraien irudiak ekarri ditut, lekuak pixka bat alboratuz, beste era batean ipiniko baitituz; zentzu osoa ematen saiatu naiz, lotura narratiboa izan dezaten.
—Zergatik emakumeak?
—Egia esan, balore narratiboengatik aukeratu ditut, ez genero baloreagatik. Emakumeak konplexutasun emozional handia dauka. Horregaz ez dut esan gura gizonak ez daukatenik, baina emakumeek kontatzen dute. Oso aberasgarria izan da hori niretzat. Gauza batek daroa bestera, narratibak eroan du emakumeak baliatzera.

«Lamiakoko emakumeak erabili ditut mapa humanoagoa egiteko»

Oso gustura nago.
—Nola otu zitzaizun ideia?
—Londresen egon nintzen bizitzen eta bertan hasi nintzen lanean auzoko jendeagaz. Auzo bitxia zen, inguruagaz disonantea zen gune hori. Lehenago ere lan eginda nengoen komunitateakaz. Hona etorri eta estudioa Lamiakon daukadanez, begiratzuz soilik ijitu komunitateko emakume batek erakarri zuen nire arreta. Besteakaz ere gertatu zait. Ia sedukziozkoa da arreta hori, beraiek seduzitzen naute ni, eta nik seduzitzen ditut beraiek, konbinazio baten antzera.
—Zenbat argazki erakutsiko dituzu?
—Oraingoan 30 irudi baino ez dira, handiak. Lana askoz zabalagoa da, iaz urte osoan ibili bainintzen egitasmoan lanean. Leioa leku ona da parte hartu duten emakumeak ikustera hurbil daitezten. Gainera, aretoak baldintza nahiko interesgarriak dauzka. Helburu orokorra da erakusketaren narratiba ulertzea, oraingoan irudiak bakarrik erabiliko ditut eta; zerbait probokatu ikusleagan. ○



adi lagun!

Martxoaren **2tik** aurrera pasatuko dizugu urteroko harpidetza kuota.

edozein argibidetarako deitu telefono honetara: 94 491 13 37

eski IKASTAROA

Adina: 10-14 urte
Martxoak 14, egun osoan zehar
IZENBURUA: 55 € bazkideak | 65 € bazkide ez direnak
ZENBA EMATEKO EPEA: 2009-10-01-2009-11-6ra arte

Bizirik Lapoan Euzko Elkartea | Postalea 1, 10. bulegoa | Algora
94 491 4357 | bazkideak@euzkoelkartea.net | www.bizirik.net/bi
Izena emateko, zehazki: egunero 10:00-13:30 | astearte
eta ostegunetan: 10:30-13:00etan

Jone Agirregoitia > Azkorrane

“Ederto nenkian telebisinoan seiak arte ez egoala ezer”



“Orduan ama tio Imanolen balkoira igoten zan, eta han hasten zan koittedea, girrintzeka, guri deitzen etxera joateko

Umetako bizipenak ei dira subkontziente-an betiko lotzen direnak. Batzuen kasuan flashen moduan bueltatzen ei dira; neurean zuri-baltzeko argazkiak dira.

Argazkiotako batean ama ikusten dot Azkorraneko subtean plantxaten, irratan “Elena Francisen” kontsultorioa emoten daben bitartean. Eta subeteko beste txokoa neu, eskolako beharrak egiten eta merienda jaten. Ederto nenkian telebisinoan seiak arte ez egoala ezer. Sasoi horretan lehenengo katea eta UHF baino ez egozan, eta ordutegia be ez zan egun osokoa gaurko lez, horregatik denpora gehiena kanpon emoten genduan auzokoakaz olgetan.

Eta horixe da hurrengo argazkia: Iberberangoko mardarastarrak gugaz eta beste lagun despistaduren bategaz sokan, goman edo campo quemaun jolasten. Sei edo zortzi ume errez batzen ginen inguruko landetan edo etxe aurreko patioan, eta han emoten genduzan orduak gau egin arte. Orduan ama tio Imanolen balkoira igoten zan, eta han hasten zan koittedea, girrintzeka, guri deitzen etxera joateko.

Azken irudian etxe ingurua ikusten dot: Ondiño Martiturri estarta asfaltatu barik egoan eta bide osoan farola pare bat baino ez, “txapeldun” horreetakoak. Horregatik neguan katiuskak jantzi behar izaten gendu-

zan, dana basa eta ura zalako. Gainera, Iberberangoko estartan behiak ibiltzen ziren, eta hareen hankek egindako zuloetan be kriston potria egoan. Ni beti izan naz bel-durtia eta amak balkoitik deitzen ebanean etxera joan behar izaten neban, batzutan bakarrik eta gauzez. Ederto gogoratzen dot orduan zentenolako abiadan joaten nintze-la, baina hain ondo ezetuten neban bidea, ze ez neban basarik zapaltzen, pausu bakoitza emotean beti harri bat topaten neban oina ipinteko. Gaur egun dana da asfalto, behiak be ez dagoz inguruan eta horreen lekuan kotxeak eta metro geltoki barria dekoguz, baina hori progresua ei da. ○

Txikitxu taberna

Karaokea, pintxoak eta kafe ona



Jon Lopez Aguado Txikitxu tabernan

Sopelako bihotzean dago Txikitxu taberna. Jon Lopez Aguado sopeloztarrak zabaldu zuen 2007ko ekainean. Gaztetatik ostalaritzan ibili da, eta bere herrian taberna zabaltzeko aukera ikusi zuenean animatu egin zen. Bataiatzerakoan, beragaz bat doan izena aukeratu zuen: “Gizon txikia naiz eta taberna ere ez da oso handia; horregatik aukeratu nuen izena”. Martitzenetik domekara dago zabalik; asteburuetan eskaintza berezia dauka: “Pintxo gehiago egiten ditugu, dena etxean egindakoa: bakailaoa, kroketak, piper beteak, arroz eta sagar pastelak...”. Honez gain, kafe bereziak prestatzen dituzte, krema- kafea adibidez. Udan terraza ateratzen dute kalera.

Oso handia ez bada ere, badago zer egin Txikitxun. Asteburuetan mikroa eskuan

hartuta, abeslari moduan duten trebetasuna neurtzera hurbiltzen dira asko eta asko. Izan ere, karaokea dago gaueko 10etatik ordu 2etara. Bestalde, motorzaleak erakartzea gura du Lopez Agudok: “Ni motorzalea naiz. Taberna moto txikiakaz eta mundu horregaz harremandutako beste zenbait gauzagaz apaintzen hasi naiz. Inguruan badaude surfagaz lotuta dauden zenbait taberna; nik motorzaleei leku bat eman gura nieke. Hemen inguruan jende asko ibiltzen da motorean”. Sopelako giroa bere momenturik onenean ez badago ere, betiko jendeak ez du huts egiten. Badago Sopelan ondo pasatzeko beste txoko bat. Jabearen partez mezu garrantzitsua: “Badakigu euskaraz!”. ○

Bidebieta 7, SOPELANA
Tel: 94 676 00 54



URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93



galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



ARTAZA ETXEA
jatetxea
• gozariak
• txuletoia • makailua
• arrain freskuak

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25
AREETA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI -
GETXO

basalbobaserria@yahoo.com



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- ISPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasorekin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"
Prentsa - Frutu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

**Usategi
kafetegia**



*Usategi parkea z/g,
Algorta*


*Telf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

URA  (Abenduak 21 urtarrilak 19) Ez da erraza beharrera egunero barretsua joatea, baina saiatzen zara behintzat. Lasai, laster datoz oporrak, mendira txangoa egiteko aukera parebakoa zain daukazu.	OTSOA  (Urtarrilak 20 otsailak 18) Larunbatean ondo pasatu zenuen, ezta? Nola? Dagoeneko hurrengo asteburuan pentsatzen? Mahai gainean daukazun liburuari arreta handiagoa eskaini beharko zenioke, eta asteburuak astebururako utzi.	ADARRA  (Otsailak 19 martxoak 20) Karnabal, karnabal... A zer nolako martxa! Hori da moztorroaz gozatzea! Baina orain lanak dauzkazu gogoratzeko nor ote zen moztorro barruan zegoena. Behingoz ligatu eta nor den jakin ez? Ai, ai, ai!
AITZURRA  (Martxoak 21 apirilak 19) Lasai antzean zabilta azkenaldian, umore onez jarraitzen duzu, hori da zortea hori! Gozatzen jarrai ezazu eta ondokoak alaitzen jarraitu, horren premia daukate eta.	HOSTOA  (Apirilak 20 maiatzak 19) Azkenean bidali duzu pikutara zure nagusia eta orain lasaigo zaude. Zorionak! Errespetuz tratatuko zaitu hemendik aurrera, ez dizu edozein modutan aginduko lana.	EGUZKIA  (Maiatzak 20 ekainak 18) Hariagaz eta orratzagaz lanak izan zenituen moztorroa egiteko, baina argia zara eta topatu zenuen josteko modu errazagoa. Hori bai, grazaz bete beharko zenuke grapagailua, batere gabe utzi zenuen eta...
GARIA  (Ekainak 19 uztailak 18) Gogoz ekin diozu azterketen emaitzak ospatzeari, baina horrela jarraituz gero, ekainekoak iritsi eta bertan harrapatuko zaituzte. Denetarako denbora dago, har ezazu pixka bat ikasketei kasu egiteko ere.	LASTOA  (Uztailak 19 abuztuak 17) Beragaz jarraitzen duzula, asko da ba! Segi horrela, gustura sumatzen zaitugu; baina lagunei noizbehinka kasu apur bat egitea ere ez dago txarto, zugaz egon gura dute eta.	IRATZEA  (Abuztuak 18 irailak 16) Bizikletaren pedalei eragin eta eragin, Lapurdiraino iritsi zarela? Segi bada pixka bat aurrerago, Zuberoako Maskarada ikusteko aukera izango duzu horrela.
META  (Irailak 17 urriak 16) Baleriana hartzea ez da txarra, suabea da gainera, baina zuk pote osoa hustu duzu segituan. Dena barnean gorde eta baleriana hartzea baino, hobe zenuke beragaz berba egin eta arazoak argitu.	HAZIA  (Urriak 17 azaroak 15) Ederki alaitu zenuen bada, zure lagun hura! A ze pare! Parrandazale eta parrandalari. Arnasa hartzeko ere ez zarete geratu. Beno, jarraitu gozatzen orduan.	NEGUA  (Azaroak 16 abenduak 20) Negu luzea izaten ari da aurtengoa, udazkenean hasi zelako agian. Eskerrak beherapenetan erositako arropa mordoa daukazun. Azkenean dena estreinatzeko denbora emango dizu, eh?!



www.koskairratia.com



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Ezker eskuin

1. Harginen lanabes. Kainen anaia hura. 2. Oparitua. Karga edo salgai baten pisu garbia. 3. Itsasbazterreko amildegi. Hari, zuen. 4. Emakume izena. Ilusioa. 5. Ez baserritar, ez portuar. 6. Zazpigarren hilabetea. 7. Enperadore germaniar. Galdetzaile bat. 8. Gabarra txikiak. Donostiako auzoa. 9. Zezen zikiratua. Pl., musika tresna. 10. Alderantziz, laborarien lanabesa. Irungo auzoa.

Goitik behera

1. Pluralean, bizikleten eserlekua. Nasa, moila. 2. Metalen erakarlea. Sasoi, garai. 3. Ez estu. Kasik (berba bitan). 4. Alderantziz, emakume izena. Euskara, hitz elkartzeetan. 5. Sutondoko katea. 6. Iskanbila, istilua. 7. Beriz. ... egin, agindutakoa bete. 8. Kausa partikula. Egona. 9. Erosi aditzaren oina. Gurpilik gabeko gurdiak. 10. Beharra. Gasteizko auzoa..

Soluzioak

V	K	V	N	V		T	V	I	V
K	V	N	E	K		V	I	D	I
	H	V	M	V		K	V	T	V
H	E	Z		H	V	S	I	V	K
V	T	I	V	T	Z				
			H	V	T	E	T	V	K
V	S	T	E	M	V		V	N	V
N	O	I	Z		H	V	B	V	T
V	H	V	T		V	N	V	M	E
L	B	E	L		V	E	Z	I	Z

asmatu eta irabazi > argia produktuak



Nor da?

- Eukararen aldeko korrikaldiaren arduraduna.
- 1959ko urriaren 23an jaio zen Bilbon.
- GALEk Santi Brouard, aita hil zion 1984an.

> Aurrekoaren erantzuna: Jose Luis Korta

> Irabazlea: Ane Albizu*

*deitu goizez tf.: 94 491 13 37

argia

astekariaren biru
bilabeteko harpidetza doan



+



Jolasak eta
liburuak

www.argia.com



ANGEL INTXAUSTIK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ALGORTAKO MAMARRO FUTBOL TALDEA,1943

Hauexek dira Algortako San Nikolas auzoko Mamarro futbol taldeko bost aurrelariak (14-16 urtekoak); Mamarrok izan zuen lehenengo futbol taldekoak, hain zuzen ere. Atzelariek eta erdilariek ere, jakina, aterako zuten beraien argazkia. Hor ditugu geure jokalariek, elastiko zuri-berdez eta praka beltzez, "Campa La Union"en (gaur egun Sener enpresa dagoen lekuan) bertan jokatu baitzen urte batzuetan Getxoko auzoarteko futbol txapelketa. Handik urte batzuetara, 1946an, hasi ziren Getxoko futbol hondartzako txapelketak. ○

Ezkerretik eskumara: Alberto Dominguez (GB), Roman Intxaurtieta (GB), Dani Diaz (GB), Pablo Atxurra (GB), Andres Intxausti (GB), Luis Mari Oñate (GB) (berokia jantzita)



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

ANE ZABALA > Aktorea eta kazetaria

“Irratiak garrantzi eta presentzia handia dauka nire bizitzan”

Testua: **Maitane Nerekan**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Alaia eta oso aktiboa.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Fidel Castro. Ikaragarria egin zuen, iraultza martxan jarri eta 50 urtez hori mantendu, eduki dituen oztopo guztiak gaindituz.

Zerk ematen dizu beldurra?

Bakardadeak, bakarrik geratzea ez zait bat ere gustatzen.

Zein pelikulan egingo zenuke protagonistaren papera?

Café Irlandes (Stephen Frears). Asko gustatu zitzaidan eta gustura egingo nuke behar estilo horretako film batean.

Orain zarena izango ez bazina zertan jardun gura zenuke?

Oso nekatuta nagoenean esfortzu mentalik eskatzen ez duen zerbaitetan behar egitea gura nukeela esaten dut. Hala ere, uste dut nire burua engainatzen dudala, ez nuke jasango eta.

Animalia izango bazina, zein gura zenuke izan?

Hiriko txakur txiki horietako bat. Klean ibiltzen dira egun osoan.

Gehien gorroto duzun topikoa?

Jendeak esaten duenean “komatxo artean”. Gorroto dut.

Hautzaroko oroitzapen bat.

Ikastolako edozein momentu. Oso oroitzapen ona daukat ikastolako.

Abesti edo musika talde gustukoena?

Duda barik, Zea Mays. Disko bat aukeratu behar izatekotan *Elektrizitatea* esango nuke, euren diskorik biribilena da.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Irrati barik; garrantzi eta presentzia handia dauka nire bizitzan.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Busturia; bertokoa da nire familia guztia eta denbora asko pasa dut han.○

LABURREAN— Irratian, zein antzerkian ibiltzeagatik da ezagun Ane Zabala bilbotarra. Emakume polifazetikoa da, geldirik egon ezin den horietakoa. Kazetari, zein aktore lanetan ibiltzeaz gain, hainbat herri ekimenetan, zein ekin-tza kulturaletan hartzen du parte. Gilkitxaro antzerki taldean hasi zen aspaldi Galder Perez aktoreagaz batera. Azken lau urteotan, profesional gisa ibili da Mauleko Hebertik, Bilboko Glu-glu eta beste zenbait antzerki taldegaz. Honez gain, Radio Euskadin egin du behar eta Bilbo Hiria irratian parte hartzen du. Otsailaren 26an, *Mirande Kabareta* antzerki lana estreinatu zuen Korrika Kulturalaren barruan. Horretan, Edorta Jimenezek egindako testua antzezten dute Zabalak eta Perezek. Rafa Acebesek eta Txuma Murugarrenek egin dute kabareterako musika.

EROSI EUSKARAZ


aurrealdea

atzealdea



Eskatu zure betiko dendan,
erosketak idazteko koadernotxo

... baina euskaraz.



Getxo
UDALA - AYUNTAMIENTO
Euskara Zerbitzua

EUSKARA BIZI

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Euskara Zerbitzua
Getxoko Udala | 94 466 00 10
euskara.zerbitzua@getxo.net
www.getxo.net

Hartu eta pasa!

ENTRENAMENDUETAN EUSKARA



HITZALDIAK

KIROLARI GAZTEAK: NOLA ELIKATU?

JOSEAN LEKUE. Athletic Clubeko medikua

KIROLARI GONBIDATUA:

IRATI ANDA (eskalatzailea)

Aurkezlea: XABIER USABIAGA (ETBko aurkezlea)

Martxoaren 24a, asteartea, 19:30ean. Villamonteko Kultur Etxean. DOAN

Aldi bereko interpretazio zerbitzua egongo da.

ESKOLA-KIROLA, LEHIATZEKO EDO JOLASTEKO?

IZASKUN AZPILLAGA.

Jarduera fisikoan eta kirol zientzietan lizentziaduna

KIROLARI GONBIDATUA:

Roberto Martinez "TIKO" (Eibarreko jokalaria)

Aurkezlea: XABIER USABIAGA (ETBko aurkezlea)

Martxoaren 25a, asteazkena, 19:30ean. Villamonteko Kultur Etxean. DOAN

Aldi bereko interpretazio zerbitzua egongo da.

ENTRENAMENDUA KOIKILIekin

KOIKILI LERTXUNDI (Athleticeko jokalaria)

MIKEL ARAMAIO (Athletic fundazioko entrenatzailea)

Martxoaren 26a, osteguna, 19:00etatik aurrera.

Boluako futbol zelaian. Zabalik nahi duenarentzat.

